

# III. MAPA SOZIOLINGUISTIKOA

2001

ortzentaia biztanleria hizkuntza ikerketa gizartea hiztunak azterketa soziolinguistika udalerri mapa eus  
aldaketa elebidun hazkunde ulermen gaztelania ondorioak hezkuntza zerrenda eleaniztasuna pentsamolde urte ari  
itika kultura erlazioa zenbakiak soziologia parekotasun ahoskera demografia ohiturak politika hizkuntzalaritza  
atzi letrak egoera gaia informazioa erlatiboa aurkikuntza portzentaia biztanleria hizkuntza ikerketa gizartea  
terketa soziolinguistika udalerri mapa euskara ikuspegi eraldaketa elebidun hazkunde ulermen gaztelania  
zkuntza zerrenda eleaniztasuna pentsamolde urte ariketa kritika kultura erlazioa zenbakiak soziologia r  
oskera demografia ohiturak politika hizkuntzalaritza lana idatzi letrak egoera gaia informazioa erlatibo  
ortzentaia biztanleria hizkuntza ikerketa gizartea hiztunak azterketa soziolinguistika udalerri mapa eus  
aldaketa elebidun hazkunde ulermen gaztelania ondorioak hezkuntza zerrenda eleaniztasuna pentsamolde  
itika kultura erlazioa zenbakiak soziologia parekotasun ahoskera demografia ohiturak politika hizkunt  
atzi letrak egoera gaia informazioa erlatiboa aurkikuntza portzentaia biztanleria hizkuntza ikerketa giza  
terketa soziolinguistika udalerri mapa euskara ikuspegi eraldaketa elebidun hazkunde ulermen gaztelar



# III. Mapa Soziolinguistikoa



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

III. Mapa Soziolinguistikoa, 2001. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

or. ; cm. + 1 mapa + 1 CD-ROM

ISBN: 84-457-2236-0

1. Euskara-Estatistikak. 2. Soziolinguistika-Euskadi-Estatistikak. I. Euskadi. Kultura Saila.

809.169(083.41)

801:316(460.15)(083.41)

Argitaraldia: 1.a, 2005eko otsailean

Ale-kopurua: 1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.  
Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 84-457-2236-0

L.G.: BI-586-05

# Aurkibidea

<b>0. Hitzaurrea</b> .....	7
<b>I. Aurkezpena</b> .....	9
1. Esparru espaziala .....	11
1.1. Egitura, azalera, egoera .....	11
2. Biztanleriaren banaketa eta bilakaera .....	12
2.1. Biztanleriaren banaketa eta dentsitatea .....	12
2.2. Biztanleriaren bilakaera .....	13
2.3. Biztanleriaren piramidea (2001) .....	13
2.4. Populazio-guneen neurria eta banaketa (2001) .....	14
3. Biztanleriaren jatorria (2001) .....	16
4. EAEko hezkuntzako hizkuntza-ereduak .....	20
<b>II. Hizkuntza-gaitasuna</b> .....	25
1. Hizkuntza-gaitasunaren gaur egungo egoera (2001) .....	27
1.1. Sarrera .....	27
1.2. Hizkuntza-gaitasuna, udalen arabera .....	29
1.3. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera .....	30
1.4. Euskara biziberritzea, hiriko eta gazteen arteko gertakaria .....	33
2. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera (1981-2001) .....	35
2.1. Sarrera .....	35
2.2. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, udalen arabera .....	36
2.3. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, adinaren arabera .....	38
<b>III. Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA)</b> .....	43
1. BILA indizearen gaur egungo egoera (2001) .....	45
1.1. Sarrera .....	45
1.2. BILA indizea, udalerrika .....	47



1.3. Euskararen irabaziak eta galerak .....	50
1.4. BILA indizea, adinaren arabera .....	52
1.5. BILA indizea, udalerrika, adinaren arabera .....	55
1.6. Euskararen irabaziak eta galerak, adinaren arabera .....	59
2. BILA indizearen bilakaera (1986-2001) .....	61
2.1. Sarrera .....	61
2.2. BILA indizearen bilakaera, adinaren arabera (1986-2001) .....	63
<b>IV. Etxean erabiltzen den hizkuntzaren indizea, ERABIL</b> .....	65
1. ERABIL indizearen gaur egungo egoera (2001) .....	67
1.1. Sarrera .....	67
1.2. Azterketa, udalerrika .....	70
1.3. ERABIL indizea, adinaren arabera .....	70
1.4. Etxean erabiltzen den hizkuntza, etxeko elebidunen dentsitatearen arabera .....	72
<b>V. Ondorioak</b> .....	75
<b>VI. Glosarioa</b> .....	79

# Hitzaurrea

Duela zenbait hilabete aurkeztu genituen III. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak. 2001ean egin zen inkesta hura eta irakurleak eskura du hango informazioa, bai paperezko argitalpenean (*Euskararen jarraipena III* izenburupean) bai Internet-en ([www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)). Lan berri bat jartzen dugu orain ere euskararen bilakaera nondik nora doan jakin nahi duenaren eskuetan: *III. Mapa Soziolinguistikoa*. Batak nahiz besteak 2001eko informazioa eskaintzen digu. Elkar osatzen dute biek, nahiz eta bi lanen artean baden diferentzia nabarmen bat: *Inkestan* Euskal Herri osoko datuak eskaintzen ziren. Hemen Euskal Autonomia Erkidegoak. Nolanahi ere, elkarren osagarri diren lan hauek tresna aproposa eskaintzen digute EAEn urte hauetan zehar egin den eta egiten den hizkuntza-politikaren emaitzak zein bidetatik doazen jakiteko. Eta, horrenbestez, baita bide horrek zuzenketarik behar ote duen jakiteko ere.

Lehenbizi, EAEko biztanleriaren egituraren berri ematen zaigu. Hemen, hezkuntza-sistemak duen eragina gogoan harturik, eskola-haurren banaketa ere nolakoa den azaltzen zaigu, ereduka nola banatuak dauden, alegia.

Ondoren, EAEko biztanleriaren hizkuntza-gaitasunaren berri ematen zaigu, beti ere 2001eko zentsuaren argitan. Gaitasun hau denboran zehar ez ezik (1981-2001 bitarteko bilakaera zein izan den erakusten digu), espazioan ere aldatuz joan da. Puntu honetan, Mapa honek gauzak nola diren aditzera ematen digu, udalerrrikako datuak eskainiz. Eta azkenik, bilakaera hori adinaren arabera nola gertatzen den ere ikus daiteke. Hain zuzen euskarak izan dituen irabaziak eta galerak agerian jartzen dizkigu *Mapa* honek.

Zentsuko datuek eskaintzen digute euskarari buruzko bestelako informaziorik ere, euskara zenbateraino den etxeko hizkuntza, alegia. Izan ere, euskaldun berriak sortzeko bide nagusia eskola da, baina eskolan ikasitako euskara hau etxeko erabilerara zenbateraino iristen den jakin beharreko zerbait dugu. Euskara ezin da gelditu eskola mugen barnean.


Hortaz, hau da liburu honetan irakurleak aurkituko duen informazio zehatza. Datu hauen gainean ondorioak atera ahalko dira. Jakin ahal izango dugu, esaterako, zein arlotan gabiltzan ongien eta zeinetan egin beharko dugun ahalegin berezia. Urterik urte euskararen mapa aldatuz doa eta aldaketa horren berri izatea nahitaezkoa dugu.

Miren AZKARATE VILLAR

Kultura Sailburua  
Eusko Jaurlaritza







# I. Aurkezpena



# 1.

## Esparru espaziala

### 1.1. Egitura, azalera, egoera

**E**uskal Autonomia Erkidegoa (EAE) osatzen dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoek, eta 7000 km<sup>2</sup>-ko azalera du. Iberiar penintsularen iparraldean dago, eta Kantauri itsasoa du muga iparrean; alboetan, berriz, Pirinioek eta Kantabriar mendikateak mugatzen dute.

Kantauri-Mediterraneo banalerroak zeharkatzen du ekialdetik mendebaldera, eta lurraldea bi aldetan erdibitu ere bai. Bi alde horiek oso bestelakoak dira erliebeari eta klimari dagokionez, eta, horren ondorioz, lurralde txikia izanik ere, oso paisaia ezberdina ditu.

1. irudia. Euskal Autonomia Erkidegoaren kokapena





## 2. Biztanleriaren banaketa eta bilakaera

### 2.1. Biztanleriaren banaketa eta dentsitatea


**E**AEko biztanleria, 2001eko biztanleriaren zentsuaren arabera, 2.082.587 biztanlez dago osatua, eta dentsitatea 287,9 bizt./km<sup>2</sup>-koa da.

Biztanleriaren banaketa irregularra da hiru lurraldeetan. Bizkaia, adibidez, biztanleriaren erdia baino zerbait gehixeago biltzen du (%53,9), milioi bat lagun pasatxo baititu (1.122.387); lurralde horretako dentsitatea km<sup>2</sup>-ko 500 lagunetik gorakoa da (506,4 bizt./km<sup>2</sup>-ko). Gipuzkoan, populazio osoaren herena baino zerbait gutxiago (32,3%) bizi da, guztira, 673.563 biztanle, eta dentsitate txikiagoa du, hain zuzen, 340,2 bizt./km<sup>2</sup>-ko. Azkenik, Araba, lurralderik zabalena, biltzen du populaziorik

txikiena, eta, horren ondorioz, askoz ere dentsitate txikiagoa dauka, 94,3 bizt./km<sup>2</sup>-ko.


Udalei dagokienez, guztira 250 dira. Horietatik 51 Arabakoak dira, 111 Bizkaikoak, eta, gainerakoak, 88, Gipuzkoakoak. Neurriaren arabera aztertuz gero, Arabakoak dira txikiak. Izan ere, %90 dira 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrak. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, neurri horretako udalak erdiak baino zertxobait gehiago dira. Neurri ertaine-

2. irudia. Lurralde historikoak. Biztanleria eta azalera



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2001.

3. irudia. Biztanleriaren bilakaera, 1960-2001



Iturria: EUSTAT.

ko udalak, 2.000 eta 10.000 bitarteko biztanleria daukatenak, %25 dira, gutxi gorabehera, azken bi lurraldeetan; alderik handiena udal ertain-handiei (10.000-25.000 biztanle) dagokie: Gipuzkoan gehiago dira ertainak handiak baino (%17 vs. %8,1), eta, Bizkaian, berriz, gehiago dira 25.000 biztanletik gorakoak (%9 vs. %4,6).

## 2.2. Biztanleriaren bilakaera

**B**iztanleria etengabe handituz joan zen, lurralde guztietan 1960 eta 1975 artean. Hazkundea are handiagoa izan zen industrializatutako lurraldeetan. Prozesu hori, baina, moteldu egin zen 70eko hamarkadako industria-krisiarekin batera, eta 80ko hamarkadaren hasieratik aurrera nabarmen aldatu zen joera. Biztanleriaren hazkundea gelditu, eta are gehiago, atzeraka egin zuen, batez ere Bizkaian. Hori gertatu zen hainbat faktore elkartu zirelako, besteak beste, ekonomia-krisia, jaiotza-tasaren eta inbertsioaren jaitsiera, eta, zenbaitetan, migrazio-mugimenduak ere bai. Hain zuzen, EAEko biztanleriak, azken 20 urteotan, 60.000 kide galdu ditu, alegia, ia 3 puntu gutxiago ditu, ehunekotan adierazita. Egoera hori, baina, ez da berdina lurralde guztietan.

Hala, bada, Arabako biztanleria, 1981 eta 2000 artean, %11 handitu zen, eta Gipuzkoakoa eta Bizkaikoa, ordea, murriztu egin zen, %3 eta %6, hurrenez hurren.

## 2.3. Biztanleriaren piramidea (2001)

**A**zken urteotan, EAEko biztanleriaren bilakaearak izan duen ezaugarri nabarmenena izan da zahartu egin dela, jaiotza-tasa oso baxua izan delako. Horrek, beste zenbait faktoreekin batera —adibidez, beren sorterrira itzuli direnen migrazio-fluxua—, ekarri du biztanleria gelditzea, edo, zenbaitetan, atzera egitea.


Bada, ordea, adierazle positiborik; 2001eko Zentsuaren arabera, lehenengo aldiz azken hoge urteotan,

adin-talderik gazteena (0-4 urte) aurrekoa (5-9 urte) baino handixeagoa da orain.

Oraindik ez da nahikoa denbora iragan hala dela baieztatzeko, baina badirudi gelditu egin dela jaiotza-tasa indizeen jaitsiera, eta, agian, joera horri eutsiz gero, demografia-susperraldi prozesu motel eta luze baten atarian egongo gara.

EAEko piramidean ikusi ditugun joerak berdintsuak dira aldaketa handirik ez baitute, hiru lurralde historikoetan.

4. irudia. EAEko biztanleriaren piramidea



Iturria: EUSTAT.



## 2.4. Populazio-guneen neurria eta banaketa (2001)

**E**AEn nagusi dira neurri txikiko udalak, udalerrri guztietatik %60,8, alegia, 2.000 biztanletik beherakoak baitira.


Mapan ikusten denez, lurralde historikoetako banaketa heterogeneoa da; guztietan deigarriena, hala ere, Arabakoa da, izan ere polarizazioa muturrekoa da: udalen %90 neurri txikikoak dira, eta hiriburuan, Gasteizen, lurraldeko biztanleriaren ia %75 bizi da.

Bizkaian ere bada nolabaiteko polarizazioa, baina neurrikoagoa, Bilbo Handia izeneko eremuan gertatzen da batez ere; Gipuzkoari dagokionez, banaketa orekatuagoa da, eta indar handia dute neurri ertaineko (10.000-50.000 biztanle) hiriek; horietan bizi da biztanleriaren ia erdia.

Hori guztia argi eta garbi ikusten da mapan; hiru hiriburuetako eta metropoli-guneen kontzentrazio handia dugu, baina hutsune handiak ere azaltzen dira komunikazio-bide nagusietatik aldentuta dauden guneetan. Komunikazio-bideak erraz antzematen dira, Irun-Bilbo autobidean, eta, Gipuzkoan, N-1 errepidean lerratzen diren neurri ertaineko hiriguneei erreparatuz gero. Gune horiei erantsi behar zaizkie eskualdeetako herri nagusiak (Bermeo, Gernika, Mungia, ...). Azken horiek bigarren mailako ardatzak egituratzen dituzte.

Mapan ikusten da, batetik, sarearen egitura; bestetik, egiturak berak lurraldeetan duen dentsitatea; eta, azkenik, errepideekin duen erlazioa.

## 5. irudia. Biztanleriaren banaketa, udalerrria




Iturria: EUSTAT.

Hiri-egitura sare itxi baten itxurakoa da; eta Gipuzkoan neurri ertaineko gunez osaturiko dentsitate handia dago. Bizkaia, ordea, askoz ere irekiagoa da. Araban ez da ia sarerik, hiriburuak biltzen baitu ia

guztia. Metropoli-guneei dagokienez, Bilboko askoz ere hiri-sare trinkoagoa eta maila handiagokoa da Donostiakoa baino.


6. irudia. EAEko hiri-sarearen eskema





Iturria: EUSTAT.



7. irudia. EAEn jaiotakoa ez den biztanleria, jaioterriaren arabera, 2001 (%)



8. irudia. Araban jaiotakoak ez direnak, jaioterriaren arabera, 2001 (%)



Iturria: INE. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2001.

### 3. Biztanleriaren jatorria (2001)

Biztanleriaren egitura jatorriaren arabera aztertzerakoan, ikusten dugu, 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera, EAeko 2.082.587 biztanleetatik %27 erkidegotik kanpo jaiodela.

Berton jaiotakoak ez diren 564.656 biztanleetatik gehienak (%52,9) erkidego mugakideren bat dute jatorri, alegia, Nafarroa, Errioxa, Kantabria edo Gaztela eta Leonekoak dira. Azken erkidego horretakoak dira, hala ere, gehienak (%40 inguru).

Erkidego horiez gain, historikoki populazio-emaile izan diren beste zenbaitetatik iritsi dira biztanle gehien: Extremadura (%11,9), Galizia (%9,9) eta Andaluzia (%7,1).

Bada beste datu bat, azpimarragarria dena. EAEn bizi dira atzerrian jaiotako 49.030 lagun, hau da, bertakoa ez den biztanleriaren %8,6 (populazio osoaren %2,3). Jende kopuruari dagokionez, laugarren taldea osatzen dute.

Erkidego populazio-emaile handienak berberak dira hiru lurralde historikoetan; dena dela, lurralde baikoitzak bere ezaugarriak ditu, eta horregatik dira aldeak.




Arabako esaterako, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotakoak %32,2 dira, indizerik altuena. Oro har, Arabako datuak bat datoz EAEko datuekin: Gaztela eta Leonek du ordezkari gehien, eta, ondoren, Extremadurak. Hala ere, Kantauri aldeko erkidegoetatik etorritako jende gutxiago du, baina Errioxako (mugakidea da) gehiago (%8,9). Azken erkidego horretatik etorritakoak hirugarren tokian daude, atzerrikoekin (%8,9) batera


Bizkaiko ehunekoa (%27), erkidegotik kanpo jaiotako kopuruari dagokionez, batez bestekoaren antzekoa da. Halaber, EAEn nagusi diren lurralde berak dira nagusi Bizkaian ere, jatorria dela-eta: Gaztela eta Leon, Galizia, Extremadura eta atzerria. Dena dela, batez beste, Kantauri isurialdeko eskualdeetako jende gehiago bizi da Bizkaian, beste bi lurralde historikoetan baino, eta Nafarroakoak eta Errioxakoak, batez beste, gutxiago dira. Gainerako eskualdeek antzeko batez bestekoak dituzte.

Azkenik, Gipuzkoan bizi dira, ehunekotan, erkidegotik kanpo jaiotako gutxien (%23,3); beste bi lurralde historikoetan bezala, gehienak Gaztela eta Leonetik etorri dira (%31,5), eta, ondoren, baina alde handiz, Extremaduratik. Bada datu nabarmen bat, izan ere, asko dira Nafarroatik etorritakoak (%11,5), EAEko batez bestekoa bi halako, eta, Gipuzkoan, hirugarren tokia hartzen dute. Lurralde honetan, Gipuzkoan, daude, bestalde, ehunekotan, atzeritar gehien; Galiziarrekin batera, laugarren tokian daude.

9. irudia. Bizkaian jaiotakoak ez direnak, jaioterriaren arabera, 2001 (%)



10. irudia. Gipuzkoan jaiotakoak ez direnak, jaioterriaren arabera, 2001 (%)



Iturria: INE. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2001.



EAEko atzerritarren<sup>1</sup> taldea aztertzen badugu, ikusiko dugu 30.017 lagun direla, betiere INE-k 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuari emandako datuen arabera. Kopuru horrek sinbolikoa dirudi; hala ere, azken urteotan bertaratzen ari den atzerritar kopuruari erreparatuz gero, handitzen ari dela ikusten da, eta hazkundeak joera horri eusten badiu, baliteke atzerritarrek toki handia hartzea biztanlerian.

Horregatik, kontuan hartu beharreko gertakaria da; agian, oraindik goiz da sakon aztertzeko, baina adi egon beharko dugu ea zein bilakaera duen, eta, bestalde, talde horrek ezaugarri soziodemografiko eta kultural bereziak dituen, ea zer ondorio ekar diezaiokkeen gure gizarteari.


Aurreko guztia egiaztatzeko, nahikoa da ikustea EAEn bizi diren atzerritarren %54,9 (16.493) 1996-2001 aldian iritsi dela gure erkidegora; eta azken urtean etorritakoak 1996an etorritakoak baino bost aldiz gehiago dira.

Lurralde historikoen arabera aztertuz gero, atzerritar-taldean banaketa bat dator talde horiek lurralde bakoitzean duten demografia-tokiarekin (biztanleriaren %54, %32 eta %14, hurrenez hurren); atzerritarren %50 (15.054) Bizkaian bizi dira, %31 (9.282) Gipuzkoan, eta, azkenik, %19 (5.681) Araban. Bestalde, atzerritarrek populazio osoan duten proportzioa ere antzekoa da hiru lurralde historikoetan, %1,4ren eta %2ren artekoa baita. Baina, hurrengo lerroetan ikusiko dugunez, etorrera-prozesuaren joerak desberdinak dira lurraldearen arabera.

Arabara etorri dira beranduen, etorritakoetatik %64, ia bi herenak, 1996-2001 aldian etorri baitira. Hasieran gutxi etorri ziren, baina 1999. urteaz geroztik nabarmen gehitu zen kopurua; urte horretan, esaterako, 1996an etorritakoak hiru halako etorri ziren. Eta 2001. urtean, 1996 urtean baino bost aldiz gehiago.

Bizkaiko atzerritar-taldea Arabakoa baino zerbait zaharragoa da, 1996-2001 aldian etorritakoak %57 baitira. Dena dela, kontuan hartu behar da aldi horretan etorritakoen %56 baino gehiago azken bi urteetan etorri zirela.

**11. irudia.** EAEn 1996-2001 aldian etorritako atzerritar kopuruaren bilakaera. Urtez urte eta pilatutako datuak






Iturria: INE. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2001.

<sup>1</sup> Atzerritarra: espainiarra ez den herritartasun bakarra duena.

Bukatzeko, Gipuzkoan, biztanle atzerritarren %46 baino ez ziren etorri 1996-2001 aldian. Dena dela, aldi horretako prozesuaren intentsitatea antzekoa da hiru lurraldeetan: 1998-99 urteetan nabarmen gehitu zen, baina urte horien ondoren moteldu egin zen prozesua; hala ere, Araban, 2001. urtean, berriro ere izan zen gehikuntza.

Edonola ere, prozesu berria da, eta, oro har, gero eta handiagoa; badirudi, beraz, antzematen diren unean uneko aldaketek ez diotela joera orokorrari eragingo.

**12. irudia.** Lurralde historikoetara 1996-2001 aldian etorritako atzerritar kopuruaren bilakaera. Urtez urte eta pilotutako datuak



Iturria: INE. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2001.



## 4.

## EAEko hezkuntzako hizkuntza-ereduak

### a) EAEko gaur egungo egoera

Aztertzen baditugu EAEko irakaskuntza-matrikulak, unibertsitatekoak ez direnak, ikusiko dugu 2002-2003 ikasturtean D ereduak hartzen duela ikasle gehien (%47); ondoren, A<sup>2</sup> ereduak, (%30), eta, azkenik, B ereduak (%22).

Ereduen araberako banaketa desberdina da, lurraldearen arabera. Araban dago ikasle gutxien D ereduak (%30), eta Gipuzkoan gehien, %60.


Ikasketa-mailaren arabera ere, nabarmen aldatzen da banaketa; EUSTATEk<sup>3</sup> emandako datuen arabera, ikasketa-maila zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa da D ereduak matrikulatutako ikasle kopurua. Joera hori lurralde historiko guztietan gertatzen da, intentsitatea desberdina bada ere.

Hala bada, EAEko Haur-hezkuntzan, 2002-2003 ikasturtean, ikasleen %60 baino gehiago D ereduak zeuden matrikulatuta, eta A ereduak ez ziren %10era ere iristen. Lurralde historikoen arabera, D ereduak matrikulatutako ikasleen ehunekoak aldatu egiten dira; adibidez, Gipuzkoan %75etik gora dira, eta, Araban, berriz, %40. Edonola ere,


<sup>2</sup> Gaur egun, X ereduak, euskararik gabekoak, ez du ia batere ikaslerik, eta eredu horretakoak A eredura joan dira.

<sup>3</sup> EUSTAT. «Ikasleak, mailaren eta irakaskuntza-eredu elebidunaren arabera» taula. 2002-2003.

13. irudia. EAEko ikasleak, mailaka eta hizkuntza-ereduka. 2002-2003



14. irudia. Haur-hezkuntza, ereduaren arabera. 2002-2003




Iturria: EUSTAT.


15. irudia. Lehen Hezkuntza, ereduaren arabera. 2002-2003





16. irudia. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), ereduaren arabera. 2002-2003



17. irudia. Batxilergoa, ereduaren arabera. 2002-2003



18. irudia. Lanbide Heziketa, ereduaren arabera. 2002-2003



Iturria: EUSTAT.



kasu guztietan, A ereduak ditu ehunekorik txikiak, eta lurralde batean ere ez dira %20ra iristen. Bestalde, azpimarratzekoa da Araban B ereduak zein indar duen, talderik handiena baita (ikasleen %46,7).

Lehen Hezkuntzan ere D ereduak da nagusi, EAEko ikasleen erdiak hartzen ditu-eta; A ereduko kopurua ez da %20ra ere iristen. Lurralde historikoei dagokienez, ereduaren banaketaren joera Haur-hezkuntzan gertatzen den banaketaren antzeko joera ikus daiteke.

Hurrengo mailan, DBHn, B eta D ereduetako matrikulen ehunekoak dira %30 eta %40, hurrenez hurren. A ereduan izena emandakoak %30 baino gehiago dira. Lurraldeen arabera, Arabak eta Bizkaiak ez daukate alde handirik, eta D ereduak bigarren tokian da, A ereduaren atzetik. Gipuzkoan, aldiz, argi nagusitzen da D ereduak.

Batxilergoari dagokionez, A ereduak hartzen ditu matrikula gehien (%55). Araban eta Bizkaian egoera bera gertatzen da. Gipuzkoan, ordea, gehienak D ereduan daude matrikulatuta, ia %60, eta B ereduak %5.


EAEko Lanbide-Heziketa kasu berezitat hartu behar da; izan ere, ereduari dagokienez, behintzat, oso bestelakoa da gainerako ikasketa-mailekin alderatuz gero. Hain zuzen, D ereduko matrikulen ehunekoa %13,6 da, eta B ereduak hutsala da (%3,5); matrikula gehien A ereduan dago (%82,9). Dena dela, aurrekoetan bezala, bereizi egin behar dira, alde batetik, Araba eta Bizkaia, eta, bestetik, Gipuzkoa. Azken lurralde horretan, D ereduan matrikulatutakoaren ehunekoa EAEko batez bestekoa

baino 20 puntu handiagoa da (%30,7 vs. %13,6), eta A ereduak, aldiz, batez bestekoaren azpitik dago (%64,5 vs. %82,9).

### b) Matrikulen bilakaera, ereduaren arabera, 1983-84tik 2002-03 arte

Azken 20 urteotako matrikulazioan, hizkuntza-ereduei dagokienez, alderantzizko joera gertatzen ari da, maila guztietan eta esparru guztietan A eta D ereduetan. D ereduak asko indartzen ari da, eta zerbait gutxiago, B ereduak. A ereduak, berriz, behe-ranzko joera etengabea du.

19. irudia. Matrikulen bilakaera, hizkuntza-ereduaren arabera. 1983-84tik 2002-2003 arte



Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.


EAE osoa kontuan hartuta, A ereduak, 1983-84 ikasturtean, ikasleen %78 hartzen zuen, eta 2002-03an, %31; beraz, ehunekotan, 47 puntu galdu ditu. A ereduaren beheranzko joera nabarmen horrek ez du, baina, isla bera beste bi ereduetan. Aldi horretan, esaterako, B eredia pasatu da %8,1 izatetik %22,4 izatera (+14,3 puntu), eta D eredia igo da %14,2 izatetik %46,5 izatera (+%32,3).

Lehendabiziko hamarkadan, B eta D ereduak bila-kaera parekoa izan zen, eta antzeko gehikuntza izan zuten. Bigarren hamarkadan, ordea, gehikuntza areagotu egin zen D erudian, eta B ereduarena, aldiz, moteldu egin zen zertxobait. Zenbakitara ekarrita, aipatutako aldiaren lehenengo zatian, biak handitu ziren %10-12; bigarren zatian, D eredia 20 puntu handitu zen, eta B eredia, ordea, 5 ber-terik ez.

1999-2000 ikasturtetik aurrera, D eredia da talderik handiena (%41), eta handitzen ari denez, nagusi izaten jarraituko du.


Eskolaurrean eta Lehen Hezkuntzan ere antzekoa da joera orokorra, baina ereduaren arteko hasierako korrelazioa, 1983-84 ikasturtean, desberdina zen: D eta B ereduak antzeko ehunekoak dituzte (%26 eta %23, hurrenez hurren), eta A erudian biltzen ziren ikasleen %50. Ereduen arteko alde txikiagoa zegoenez, A ereduak lehenago utzi zion talderik han-

**20. irudia.** Eskolaurreko eta Haur-Hezkuntzako matrikulen bilakaera, hizkuntza-ereduaren arabera. 1983-84tik 2002-2003 arte



Iturria: EUSTAT.

**21. irudia.** Lehen Hezkuntzako matrikulen bilakaera, hizkuntza-ereduaren arabera. 1983-84tik 2002-2003 arte






diena izateari; 1988-89 ikasturtean gertatu zen hori. 1991-92 ikasturtean, D ereduko ikasleek osatzen dute talderik handiena %37, gutxi gorabehera. Eta 1992-93 ikasturtetik aurrera areagotu egin da D ereduaren handitzea; hainbeste areagotu ere, ezen 2002-03 ikasturtean ikasleriaren %60 baino gehiago hartzen baitu. Bigarren tokian B eredua dago; azken 15 urteotan matrikulen %25-35 hartu du. A ereduari dagokionez, jaitsieraren ondoren, 2002-03 ikasturtean %10 inguruko balioa dauka.

Lehen Hezkuntzako joerak ere aurrekoen antzekoak izan dira; D eredua asko handitu da, %15etik %50 baino gehiago eduki arte, eta B ereduak alde txikiagoa izan du, %7tik %30 arte. A eredua aurreko irakaskuntza-etapan baino gehiago murriztu da; aztertutako aldiaren hasieran (1982-83 ikasturtea), ikasleen %80 biltzen zituen, eta 2002-03 ikasturtean, ordea, %20tik behera.





## II. Hizkuntza-gaitasuna



# 1. Hizkuntza-gaitasunaren gaur egungo egoera (2001)

## 1.1. Sarrera<sup>1</sup>

**H**izkuntza-gaitasunaren aldagaia dagokio, norbanakoak, oinarrizko hizkuntza-trebetasunetan (ulermena, irakurmena, idazmena eta mintzamina), euskaraz duen mailari.

Aldagai horien egoerak gurutzatuz gero, 3 talde handitan banatzen da tipologia: elebidunak, elebidun hartzaileak eta erdaldun elebakarrak; hiru talde horiek bereizten dira ahozko gaitasun-mailaren arabera; hala bada, elebidunak dira euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutenak, elebidun hartzaileak nekez hitz egin baina ondo ulertzen dutenak euskaraz, eta erdaldun elebakarrak dira euskaraz hitz egiten ez dutenak.

Tipologia horrekin bat etorrira, eta 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak zer dioten kontuan hartuta, esan genezake Euskal Autonomia Erkidegoan erdaldun elebakarren taldea, alegia, euskaraz hitz egiten ez dutenen taldea, biztanleriaren ia erdia dela (%49,6); elebidunak, hau da, euskaraz ondo hitz egiten dutenak, berriz, ia herenak dira (%32,2); gainerakoak (%18,2), elebidun hartzaileak dira.


Banaketa aztertzen badugu lurralde historikoen arabera, ikusiko dugu Araban eta Bizkaian batez

bestean baino elebidun gutxiago dagoela, %16 eta %24,8, hurrenez hurren, eta askoz gehiago direla erdaldun elebakarrak. Elebidun hartzaileen taldea antzekoa da, ehunekotan, bi lurraldeetan, batez bestekoa baino handiagoa. Gipuzkoari dagokionez, banaketa oso bestelakoa da, elebidunen taldea EAEn batez bestekoa baino askoz ere handiagoa baita; baina elebidun hartzaileen eta erdaldun eleba-

karren ehunekoak batez bestekoa baino askoz txikiagoak dira, ordea.

Biztanleriaren banaketan halako aldeak daude, lurralde bakoitzak bere ezaugarri soziolinguistikoak di-tuelako, eta ezaugarri horiek behin eta berriz errepikatzen dira hizkuntzari buruzko zentsu-datuak dauzkagunetik.


22. irudia. Hizkuntza-gaitasuna EAEn. 2001



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2001.

<sup>1</sup> Aztertu dena bost urtetik gorako biztanleria izan da.

23. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurralde historikoetan. 2001



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2001.

## 1.2. Hizkuntza-gaitasuna, udalen arabera

Udalen banaketak, beren herritarren artean diren elebidunen ehunekoaren arabera, ondo samar zehaztutako esparruak erakusten ditu.

Gunerik euskaldunenean %80 baino gehiago dira euskaldunak; udal txikiak dira, eta landa-ingurune-koak. Bi eremu dira, batez ere, halakoak: bata, Bizkaiko Ipar-Ekialdean, Markina-Ondarroa eskualde osoa eta Gernika-Bermeo eskualdearen zatirik handiena hartzen du; besteak, Urola-Kosta, Goierri eta Tolosaldea eskualdeen zatirik handiena. Gaingiroki, esan genezake gune horretatik kanpo direla kostaldeko eta Tolosa-Beasain korridoreko udal handienak.

Bi eremu horiez gain, bada beste gune txiki bat, Arratia haraneko udalek, Durangaldeko herri mugakideren batek eta Aramaiok, maila horretako Arabako udal bakarrak, osatua. Azkenik, badaude beste herri batzuk ere, bakanduta, aipatutako guneeetatik hurbil daudenak.


Elebidunak biztanleriaren %50-%80 artean diren guneak erraz antzematen dira; aurreko zonen arteko tartetean daude. Horren ondorioz, espazioa askoz ere konpaktuagoa da, eta hartzen du ia Gipuzkoa osoa, Donostia eta inguruetako herri batzuk izan ezik, eta Bizkaia erdia, ekialdea, udalerrri bakan batzuk izan ezik.

EAEen gutxienak dira elebidunen ehunekoa %25-%50 artean duten udalerrriak. Banaka eta sakabanatuta azaltzen dira, Donostiako gune batean eta Plentzia-Txorierrri-Ibaizabal (Basauri-Galdakao) lerroko —Bilbo Handiaren eta inguruko eskualde euskaldunen arteko «lotura» egiten duena— beste gune batean izan ezik.

Azkenik, %25etik beherako esparruek ia Araba osoa hartzen dute, bai eta Bizkaiko mendebalde ia

osoa ere. Gune horietan nagusitzen dira, Bizkaiko mendebaldeari dagokionez, elebidunen kopurua %10-%25 artean daukaten udalak, Barakaldo eta Enkarterrietako udal batzuk izan ezik. Arabako udal gehienek ere %10-%25 arteko ehunekoak dituzte, elebidunen kopuruari dagokionez, eta ehuneko txikiak dituzte hegoaldeko eskualdeek: Arabako Erriberak, Arabako Mendialdeak eta, batez ere, Arabako Haranek.

24. irudia. Elebidunen ehunekoak, udalerrriak. 2001



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2001.



### 1.3. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera

**A** dinaren araberako hizkuntza-gaitasunaren grafikoak hiru une erakusten ditu; lehenengo eta behin, ikusten da adin-talde zaharrenetan murriztu joan dela, gero eta gehiago, elebidunen ehunekoak, gutxieneko baliora iritsi arte, %20 inguru, 50-60 urteko taldeetan.

Une horretatik aurrera ehunekoak handitzen hasten dira, hasieran motel, eta azkarrago ondoren; intentsitate handiena gazteen taldeetan gertatzen da

eta, adibide gisa, 5-14 urte bitartekoen %60 da elebidun.


Lurralde historikoei dagokienez, guztietan gertatu da EAEn gertatutako prozesuaren antzekoa, baina, hala ere, lurralde bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Araban, esaterako, elebidunen ehunekoak txikiagoa da zaharreneen artean eta erdiko taldeen artean. 30 urtetik beherakoetan baino ez dago %20 inguruko edo hori baino balio altuagorik, eta gazteen artean gehikuntza askoz ere handiagoa da. Bizkaiak EAEn prozesu berdintsua du, berezitasunik gabe. Gipuz-

koan, berriz, adin-talde guztietan dira handiak elebidunen ehunekoak, eta adin-talde batean ere ez da %40tik beherakoa.

Udalei dagokienez, ia guztiek egiten dute bat lurraldeetan ikusi ditugun joera orokorrekin. Dena dela, EAeko hiriburuen azterketa berezia egingo dugu, demografiari dagokionez garrantzi handikoak baitira.


Gasteizko grafikoak erakusten duenez, hiriburuko egoera eta lurraldekoa, alegia, Arabakoa, berdin-

25. irudia. EAE. Hizkuntza-gaitasuna, adinarena arabera. 2001



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2001.

26. irudia. Araba. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera. 2001



berdina da; hori gertatzen da Arabako biztanleriaren zatirik handiena hiriburuan bizi delako. Ikusten denez, ezaugarrietako bat da elebidunak gazteak direla, gehienak 20 urtetik beherakoak dira-eta, eta 50 urtetik gorakoen artean ez da ia elebidunik. Bada beste datu adierazgarriak, izan ere asko dira elebidun hartzailleak, gehienak 30 urtetik beherako taldekoak.


Bilbok Gasteizek duen antzeko egoera du, eta alde garrantzitsu bakarra da elebidun gehiago dagoela adin-talde zaharrenen artean. Azkenik, Donostia

dugu; desberdintasunak handiak dira beste bi hiriburuekin eta Gipuzkoarekin alderatuta. Hala bada, adin-taldeen arteko aldeak handiagoak dira, eta elebidun gutxiago dago, ehunekotan, lurraldean baino. Edonola ere, beste bi hiriburuekin alderatuz gero, Donostiak hartzen du Gipuzkoak lurraldeen artean hartzen duen toki bera, hau da, ehunekotan, elebidun gehien duen hiriburua da, eta, aldiz, elebidun hartzaille gutxien, batez ere gazteenen artean.


Laburbilduz, adin-talde zaharrenak alde batera utzita, esan daiteke joera orokorrak oso antzekoak dire-

la, eta, erdiko taldeetan hasi eta gazteenen arteko taldeetaraino, geroz eta gehiago direla bai elebidunak, bai elebidun hartzailleak ere.

27. irudia. Gipuzkoa. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera. 2001




28. irudia. Bizkaia. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera. 2001




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2001.




29. irudia. Gasteiz. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera. 2001



30. irudia. Bilbo. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera. 2001



31. irudia. Donostia. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera. 2001



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2001.



### 1.4. Euskara biziberritzea, hiriko eta gazteenen arteko gertakaria


Elebidunen gaur egungo egoera aztertzerakoan, bai eta adinaren arabera azterketan ere, bi faktore azaldu dira: elebidunen lotura metropoli-guneekiko, batetik, eta gazteenen artean elebidun gehiago izatea, bestetik. Bi faktore horiek azaltzen dute, benetan, azken 20 urteotako prozesua?

Esan genezake, beraz, hiri-gertakaria dela, gazteenen artekoa?

EAE n 2001. urtean elebidunak nagusi diren taldeak, hau da, taldearen %50 baino gehiago elebidunak direnak, 5-19 urte artekoen taldeak dira (5-9, 10-14 eta 15-19). Are gehiago, taldekoen adina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa da ehunekoa. Esaterako, 15-19 urtekoen artean, %56,3 da elebi-

dun; hurrengo taldean, 10-14 urte, balioa %65,5 arte igotzen da; eta azken horren antzeko ehunekoa dute 5-9 urte artekoek (65,9). Hala da, elebidunen kopuru handiena duten taldeak gazteenak dira, eta hori ez ezik, kopuru absolutuetan ere 30 urtetik beherako taldeetan dago elebidun gehien. Hain zuzen ere, EAEko elebidunen ia erdiak (%47,6) adin-talde horietan daude.

32. irudia. Hizkuntza-gaitasunaren adin-piramideak. EAE. 2001



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2001.



Hiri-gertakaria dela-eta, aurretik ere aipatu dugu hiri-buruetako elebidunen kopurua handia zela, izan ere, horietan bizi dira elebidunen %20 baino zertxobait gehiago (%21,9). Esparru hori 20.00 biztanletik gorako guneeetara zabalduz gero (17 udal, guztira), ehunekoa %42,7koa da. Azkenik, INEren irizpidearekin bat etorri gero, hau da, hirigunetzat hartuz gero 10.000 biztanletik gorakoak, ikusiko dugu EAEko elebidunen bi herenak (%66,3) hiriguneetan bizi direla. Edonola ere, biztanleriaren hiri-kontzentrazioa are handiagoa da, hiriguneetan bizi den biztanleria ia %80 baita (%79,3). Horrek esan nahi du, nonbait, aztertzen ari garen gertakaria hiri-gertakaria izan arren, landa-eremuko euskaldunen ehunekoak biztanleriaren batez bestekoarenak baino handiagoa izaten jarraitzen duela.


Mapari arretaz begiratu gero, erraz ulertuko dugu zein den elebidunen banaketa, espazioaren arabera, eta nola pilatzen diren hiriguneetan, batez ere, metropoli-guneetan. Hala bada, ikusten da elebidun gehienak hiru hiriburuetan, horien inguruetan, Ibaizabaleko korridorean, Deba bailaran eta Beasain-Tolosa ardatzean bizi direla. Horiez gain, badira, bana-ka, beste zenbait gune, gehienak, kostaldean (Ondarroa, Zarautz, Bermeo...).

### 1. taula. Hirietako elebidunen banaketa

Udalerrri-kopurua	Maila	Biztanleak (2001)	Elebidunak (2001)	Elebidunen portzentajea
20	10-19.999	287.429	150.561	23,6
11	20-49.999	353.586	91.278	14,3
3	> 50.000	222.936	41.511	6,5
3	Hiriburuak	710.921	140.288	21,9
<b>Guztira</b>		<b>1.574.872</b>	<b>423.638</b>	<b>66,3</b>

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2001.

### 33. irudia. Gune soziolinguistikoak eta elebidunen banaketa erreala, udalerrrika. 2001



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2001.

## 2.

### Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera (1981-2001)

#### 2.1. Sarrera

**E**AEn 1981etik 2001era elebidunen ehunekoa %22 izatetik %32 izatera iritsi da.


Kopuru absolutuek askoz ere argiago erakusten dute zein izan den prozesu horren bilakaera. Hala bada, 1981-2001 aldian, EAeko elebidunen<sup>2</sup> kopurua pasatu da 431.136 lagun izatetik 639.296 lagun izatera; hau da, 20 urtean, lehen baino 200.000 lagun gehiagok egin dezakete euskaraz. Neurri horren garrantziaz ohartzeko, nahikoa da jakitea Donostiako biztanleria baino zertxobait handiagoa dela kopuru hori.

Lurralde historikoetan ere handitu egin da etengabe elebidunen ehunekoa, eta, horrekin batera, jaitsi egin da erdaldun elebakarren ehunekoa. Beste alde batetik, elebidun hartzaileen taldea ere handitu da, etengabe handitu ere, Gipuzkoan izan ezik, izan ere, lurralde horretan balioak %13-%15 arteko balioetan gelditu dira.

Lurralde bakoitzak egoera soziolinguistiko desberdinak bizi ditu; hala ere, elebidunen ehunekoa izandako aldaketa antzekoa da probintzia guztietan, 10-12 puntu artean gehitu baita guztietan. Araban, esaterako, lau halako bihurtu da elebidunen ehunekoa azken 20 urteotan, eta %4 izatetik %16 izatera iritsi baita; Bizkaian, %15etik %25era; eta, azkenik, Gipuzkoan, %40tik %51,5era.

<sup>2</sup> Aztertu dena bost urtetik gorako biztanleria izan da.

34. irudia. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, lurralde historikoen arabera. 1981, 1991 eta 2001



Iturria: EUSTAT. 1981, 1986, 1991, 1996 eta 2001eko zentsuak eta erroldak.



## 2.2. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, udalen arabera

Azterketa hasi aurretik, gogorarazi nahi dugu udal txikien kasuan —EAEko ia udal erdietako biztanleria 1.000 lagunetik beherakoa da— nahikoa dela taldeetako batean kide gutxiko aldaketa bat egotea beren ehunekoak neurritz kanpo aldatzeko eta zenbait egoera kontraesankor eragiteko.

Joera orokorrei dagokienez, EAEko udal gehienetan gertatu da, neurri handiagoan edo txikiagoan, elebidunen ehunekoa gehitzea.


Dena dela, joera horrek zein intentsitate duen ikusi nahi izanez gero, onena da udaletako elebidunen ehunekoak erakusten dituzten mapak aztertzea. Horrela eginez gero, ikusiko dugu elebidunen ehunekoa handia den udaletan, batez ere Bizkaiko ekialdean eta ia Gipuzkoa osoan, ez dela aldaketa-

rik gertatu balio horiei dagokienez. Eta Bizkaiko gainerako udaletan eta Araban, ordea, 1981ean elebidun gutxi ziren, eta joera da etengabe handitzekoa; horrek dakar ehunekoa etengabe gehitzea eta, horren ondorioz, udal horietako asko igo egin dira euskaldunen ehunekoak jasotzen dituen eskalan.


Hiriburuetan izandako bilakaera lotuta dago, neurri batean, behintzat, abiapuntuan zituzten ehunekoe-kin. Horiek horrela, Gasteizen %3,5 ziren elebidun 1981ean; abiapuntuan ehunekorik txikiena zuen hiriburu horrek, eta, proportzioari dagokionez, hantxe izan da irabazirik handiena. Izan ere, 1991n %7,6 ziren elebidun, eta 2001ean, %14,7; beraz, hasierako ehunekoa ia bost halako da. Bilbon, elebidunak %6,4 ziren 1981ean, eta ehunekoa bikoitza baino gehiago zen 2001ean, %15,3. Azkenik, Donostian, abiapuntuan ehuneko handiagoa zuten, %21,4, eta irabazia txikiagoa izan da, 2001ean biztanleriaren %34,6 baitzen elebiduna.

Irabaziak balio absolututan aztertzen baditugu, ikusiko dugu hiru hiriburuetakoko irabaziak antzekoak direla, 24.000-28.000 elebidun berri baitauzkate.

35. irudia. Elebidunen bilakaera, hiriburuetan. 1981-2001



Iturria: EUSTAT. 1981, 1986, 1991, 1996 eta 2001eko zentsuak eta erroldak.

**36. irudia.** Elebidunen kopuruaren bilakaera 1981 eta 2001 urteen artean

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 1981, 1991 eta 2001.



### 2.3. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, adinaren arabera

**G**aur egungo egoera aztertzerakoan, ikusi dugu zein den gaitasunaren egitura adin-taldean arabera eta, era berean, zenbat eta beherago egin adinean, elebidun hartzailleak eta elebidunak gehiago direla, eta nabarmen murrizten dela erdaldun elebarkarren kopurua.

Orain aztertuko dugu adin-taldeen aldi horretan izan duten bilakaera. Horretarako, lehenengo eta behin, sailkapena ahalik eta gehien erraztearren, elkartu egingo ditugu, biztanleriaren banaketari dagokionez, hizkuntza-gaitasunaren eta adinaren arabera ezaugarri komunak dituzten taldeak. Hori dela-eta, lau taldetan banatuko dugu biztanleria:

- 5-24 urte: talde honen ezaugarriak dira elebidun eta elebidun hartzaille asko dauzkala eta, beste alde batetik, gutxiengo direla erdaldun elebarrak.
- 25-44 urte: talde honetan joera aldatzen da, eta neurrian bada ere, hizkuntza berreskuratzeko prozesuan aurrera egin dela antzematen da.
- 45-64 urte: talde honetan daude elebidun gutxi, ehunekotan.
- 65 urte: talde honetan elebidun gehixeago dago, eta elebidun hartzaille gutxi duen taldea da.

Adin-taldeen elebidunek izan duten bilakaera erakusten digun grafikoa aztertuz gero, ikusiko dugu zaharrenek taldeak atzeraka egiten dutela, eta gazteenak biltzen dituzten bi taldeen joera alderantzizkoa dela eta irabazia etengabea dela; hala ere, alde handia dago 25-44 urte arteko taldetik 25 urtetik

beherakoenera. Azken horretan, ikusgarria da handitzea, izan ere, 1981ean %19,3 ziren eta 2001ean, aldiz, %55,5.

Lurralde historikoen arabera bilakaerari dagokionez, eta, betiere, kontuan hartuta lurralde bakoitzak bere-bereak diren ezaugarriak dituela (ehunekoak txikiagoak dira Araban Bizkaian baino, eta are handiagoak dira Gipuzkoan), joerak antzekoak dira, intentsitateari dagokionez aldaketaren bat bada ere. Aldaketarik adierazgarriena Arabako zaharrenek bi taldeen gertatzen da; lurralde horren ezaugarriak direnak direla, bi talde horietako ehunekoak oso txikiak direnez, zaila da joera beheranzkoa izatea, eta, horregatik, balioek bere horretan irauten dute edo zertxobait handitzen dira, aztertutako aldian.


Beste alde batetik, elebidun hartzailen taldeak dauzka baliorik txikiak. Zaharrenek taldeen, 1981ean, oso txikiak ziren ehunekoak, eta bere horretan iraun zuten aztertutako aldiaren bukaera arte, nahiz eta azkenaldian zertxobait handitu ziren. Bilakaera hori antzekoa da 45 urtetik gorako taldeen, bai EAEn eta bai hiru Lurralde Historikoetan ere. Bilakaera oso bestelakoa da gazteen taldeen. 25-44 urte arteko taldean, esaterako, EAEn dagokionez, etengabe handitu da, aztertutako aldi osoan, elebidun hartzailen ehunekoak; hori gertatu da toki guztietan, Gipuzkoan izan ezik. Lurralde horretan, askoz ere txikiagoa da irabazien eritmoa. Gazteen taldea (5-24 urte) dela-eta, aldiaren lehen erdialdean, 1991 arte, irabaziak handiak izan ziren, Gipuzkoan izan ezik, ehunekoak antzeko mailan iraun baitzuten azken lurralde horretan. Bigarren erdialdean, alegia, 1991tik 2001 arte, beheranzko joera antzematen da EAEn, baina, horrekin batera, areagotu egin ziren elebidunen irabaziak.

Azkenik, EAEn erdaldun elebarkari dagokionez, irabaziak izan dira 65 urtetik gorako artean. Hurrengo taldekoak, 45-64 urte, gehitzeko joera erakutsi zuten hasieran, baina bigarren erdialdean alderantzizko joera azaldu da, oro har. Gainerako bi taldeen beherakada handia izan da. 25-44 urte arteko biztanleriaren taldean, beheranzko joera txikiagoa da lehenengo erdialdean, baina 1991z geroztik azkarrago jaitsi da. Talderik gazteenaren kasuan, eritmoa bizia da, eta benetan deigarria, adibidez, Arabari dagokionez, izan ere, 1981ean, erdaldun elebarrak 5-24 urte arteko biztanleriaren %80 ziren, eta 2001ean, ordea, %20 pasatxo baino ez dira.

EAEn eta hiru lurralde historikoetako joera orokorrak udaletan ere gertatzen ote diren aztertuko dugu orain; hori ikustearren, azter dezagun hiru hiriburuetan izandako bilakaera.

Hizkuntza-gaitasunak adinaren arabera izan duen bilakaerari dagokionez, ikusten dugu Gasteiz eta Araba elkarren eskutik doazela; 45 urtetik gorako taldeen elebidunak eta elebidun hartzailleak oso gutxi dira, %5etik behera, aldi osoan, nahiz eta aldatzatxoren bat edo beste badagoen. Hurrengo taldeak (25-44 urte) ere antzeko ehunekoak zuen hasieran, baina etengabe joan da handituz aldi osoan, nahiz eta handitzeko prozesua motel samarra izan den; edonola ere, beti izan da elebidun hartzaille gehiago elebidun baino. Hala bada, 25-44 urte arteko taldean, hasieran %6,6 ziren elebidun hartzailleak, eta bukaeran, %24,6; elebidunak, berriz, hasieran %2,6 ziren, eta bukaeran, %12,7. Erdaldun elebarkari dagokionez, zaharrenek taldeen ez da ia aldaketarik gertatzen. Hurrengo taldetik aurrera, baina, zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta gehia-





37. irudia. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, adinaren arabera, EAEn. 1981-2001



Iturria: EUSTAT. 1981, 1986, 1991, 1996 eta 2001eko zentsuak eta erroldak.



**38. irudia.** Elebidunen bilakaera, adinaren arabera, lurralde historikoetan. 1981-2001



Iturria: EUSTAT. 1981, 1986, 1991, 1996 eta 2001eko zentsuak eta erroldak.



go jaisten da ehunekoa. 45-64 taldean ia antzeman ere ez da egiten beherakada, baina 25-44 taldean %90,8tik jaisten da %62,7ra. Hala ere, gazteenen artean (5-24 urte); Ikusgarria da aldaketa, %79,2 izate-tik %23,8ra jaisten baita.

Bilbok eta Donostiak beren lurraldeen antzeko bilakaera dute.

Bilbon, adibidez, elebidunak eta elebidun hartzaileak gutxi dira, ehunekotan, eta bilakaera antzekoa da aldi osoan, zertxobait egiten baitu atzeraka elebidunei dagokienez, eta zertxobait aurrera elebidun hartzaileei dagokienez. Baina azken urteotan egonkortu egin da, baita gazteenen artean ere. Erdaldun elebakarrak direla-eta, zaharrenen taldeetako bilakaera egonkorra da, edo, agian, uneren batean goraka egiten du zertxobait; talderik gazteenetan nabarmena da beheranzko joera, eta nabarmenena talderik gazteenean. Joera hori, bestalde, areagotu egiten da urteak aurrera doazen neurrian.

Donostiak elebidun kopuru handi samarra dauka beste bi hiriburuaren aldean. Horregatik, bilakaera ere bestelakoa da elebidun hartzaileei dagokienez; hala ere, elebidunen eta erdaldun elebidunen bilakaera beste bi lurraldeetako antzekoa da. Elebidun zaharrenen taldea egonkorra izan zen 1981etik 1986 arte, eta, ondoren, Bilbon baino gehixeago egin zuen behera, %34,5 izate-tik, %26 izatera igaro baitzen; dena dela, ez dugu ahaztu behar abiapuntuko ehunekoa hiru aldiz handiagoa zela Donostian Bilbon baino. Hurrengo taldean (45-64) ez da jaitsierarik izan, eta ehunekoek egonkor diraute, gorabehera: %24 1981ean, eta %22,5 2001ean. Aurreko kasuetan bezala, gazteen taldeetako bilakaeraren ezaugarri da etengabeko irabaziak aldi osoan;

irabazi horiek biziagoak dira, hala ere, gazteenen artean, %18tik %63ra. Erdaldun elebakarren prozesua da gainerako hiriburuetan gertatzen denaren antzekoa: zaharrenen taldeak apur bat handitzen dira, baina, dena dela, 45-64 urte artekoen taldean irabaziak eten egin ziren 1991n, eta ehunekoa hasierako balioetara etorri zen berriz ere (%59,6 1981ean, %65,3 1991n eta %58,4 2001ean).

25-44koen taldeak aldaketa txiki batzuk izan zituen aztertutako aldiaren lehen zatian, 1981etik 1991ra; horren ondoren, beheranzko bidea hartu zuen: 1991n %57,2 ziren, eta 2001ean %40,4. Gainerako kasu guztietan bezala, gertaera askoz ere biziagoa suertatu zen gazteenen taldean (5-24 urte), eta %49,3 izate-tik %13,7ra jaitsi zen, bai eta adin-talde horretako multzorik txikiena bihurtu ere.

Hala ere, aurrez esan dugun bezala, elebidun hartzaileen bilakaera desberdina da beste hirietako bilakaeraren aldean. Hain zuzen, 25 urtetik gorako hiru taldeek antzeko jokabidea agertzen dute, alegia, zertxobait jaisten dira 1981-1986 aldian, eta, ondoren, poliki-poliki, hasierako balioetara edo zertxobait gorago igotzen dira etengabe. 5-24 urte artekoen taldeak ez zuen aldaketarik izan balioetan hasieran (%32,7 1981ean, eta %32 1991n), baina hortik aurrera beheranzko joera izan zuen, geldoa baina etengabea.


Euskal Autonomia Erkidegoa, lurralde historikoak eta hiriburuak aztertzerakoan ikusi dugunez, hizkuntza-taldeen bilakaera, azken hogeitau urteotan, oro har, antzekoa da esparru guztietan, nahiz eta unean uneko aldakuntza txikiren bat izan.

Elebidunak, ehunekotan, gutxiago dira, lehen baino, 45 urtetik gorako taldeetan; adin horretatik beherako

taldeetan, ordea, joera goranzkoa da, eta are gehiago gazteenen artean.

Elebidun hartzaileen taldeetan daude alde handienak. Hain zuzen, eremu ez euskaldunetan antzeko ehunekoak dituzte adin-talderik zaharretan, eta 25-44 urte artekoen taldeak handitzen ari dira eten-gabe eta bizi samar. Goranzko joera hori azaltzen da baita talderik gazteenean ere, baina eten egiten da joera aldiaren erdialdean, eta gelditu edo zertxobait jaitsi ere bai. Beste eremu batzuetan, elebidun gehiago dauden eremuetan, alegia, 25 urtetik gorako talde guztiek dute antzeko joera: zertxobait jaisten dira, eta, ondoren, poliki-poliki, etengabe, handituz doaz, harik eta lehengo maila berera edo apur bat goragoko balioetara iritsi arte. Gazteenen taldean, berriz, hasieran geldituta zegoen, baina gero azkar samar hasi zen jaisten. Bukatzeko, erdaldun elebakarren bilakaera berdintsua da kasu guztietan: adin-talde zaharretan fluktuazio txikiak edo irabazi txikia ikusten da, eta 45 urtetik beherako artean, berriz, beherakada nabarmena, nahiz eta aldiaren hasieran 25-44 taldean ez zen aldaketa handirik izan. Gazteenen taldean, ikusgarria da beherakada.





III.

## Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA)



## 1.

## BILA indizearen gaur egungo egoera (2001)

## 1.1. Sarrera

**B**ILA indizea tipologizazioa da, lortzen dena hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza aldagaiak gurutzatuta. Zazpi taldek<sup>1</sup> osatzen dute tipologia, norbanakoaren hizkuntza-garapenak izan ditzakeen aukerak islatzen dituztenak. Honako kasu honi dagokionez, taldeak ezartzen dira hiztunak euskaraz zein mailatan dakien kontuan hartuta, eta beste irizpide bat da ea hiztun horrek euskara izan zuen, bakarrik edo gaztelaniarekin batera, lehen hizkuntza. Beraz, lehen hizkuntza euskara duenak baliteke gordetzea edo galtzea, osorik edo zati bat, eta euskara ez badu lehen hizkuntza, baliteke ikastea, osorik edo zati bat, edo ez ikastea.

Indize horrek balio du euskarak galdu edo irabazi dituen hiztunak zenbat diren jakiteko, bai eta hiztunak hizkuntza gorde ote duen, bizitza osoan zehar, jakiteko.


2001eko Zentsuaren datuak oinarri hartuta, esango dugu, oro har, jendeak euskara gorde egiten duela eta, galera txiki batzuk egon arren, askoz ere handiagoak direla irabaziak, hiztun berriei esker. Hain zuzen, *partzialki erdaldundutakoek eta erabat erdaldundutakoek* osatzen duten taldea biztanleriaren %2,1 dira, eta euskarak jasotzen dituen *euskaldun berriak*, berriz %10,9. *Partzialki euskaldun berriak* osatzen dutenen taldea azterketatik kanpo utzi

dugu, ez baitzegoen zehazterik hizkuntzara etortzen edo hizkuntza galtzen ari ziren.

BILA indizearen araberako egituraketa nabarmen aldatzen da lurralde batetik bestera, bakoitzaren ezaugarri soziolinguistikoen arabera. Esaterako, Araban nagusi dira *erdaldun zaharrak* (%64), eta oso gutxi dira *euskaldun zaharrak* (%2,9) eta *jatorrizko elebidunak* (%1,5). Hori dela-eta, ia ez da galerarik azaltzen duen talderik, bien artean %1 baitira. Hala ere, azpimarratzekoa da *euskaldun berrien* taldeak duen indarra (%12), hiru lurralde historikoetako ehunekorik handiena.

Bizkaian ere nagusi da *erdaldun zaharren* taldea, erdiak baino gehiago baitira (%55). Baina *euskaldun zaharren* taldea ere handi samarra da (%12), eta, ez, ordea, *jatorrizko elebidunena*, %2 baino apurtxo bat gehiago dira-eta. Galeren taldeak Araban baino zertxobait handiagoak dira, baina, hala ere, bien artean ez dira %2ra iristen. *Euskaldun berriak* %10,4 dira, eta *partzialki euskaldun berriek* (euskara ikasten ari direnak edo ikasi dutenak) talde handia osatzen dute (%18), baina ez dago argi zehaztuta zein eragin duten. Gipuzkoari dagokionez, lurralderik euskaldunena da. *Euskaldun zaharrak* dira talderik handiena (35,7), eta ondo-ondoan


39. irudia. Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA). EAE. 2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak. 2004.

<sup>1</sup> Ikus taldeen definizioa glosarioan.

40. irudia. Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA). 2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.

daude *erda*ldun zaharrak (%33). *Euskaldun berrien* ehunekoak direla-eta, beste bi lurraldeetakoan antzekoa da Gipuzkoan ere (%11,2); bestalde, *ja-torrizko elebidunen* eta galerak erakusten dituzten gainerako taldeen ehunekoak Araba eta Bizkaikoak baino handixeagoak dira, baina kopuru txikiak dira, hala ere.

### 1.2. BILA indizea, udalerrrika


**U**dal-egoeraren ikuspegi orokorra lortzearen, bi mapa hartuko ditugu oinarri, agertzen dituztenak bi talderik adierazgarrienen udal-ehunekoak, alegia, euskaldun zaharren eta euskaldun berrien ehunekoak.

Aurreko atalean hizkuntza-gaitasuna aztertu dugu, eta azaldu dugu euskara berreskuratzea hiriko gertakaria eta gazteen artekoa dela. Orain, saiatuko gara egiaztatzen ea elebidunen bi talderik handienek, euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak, islatzen


ote dituzten joera horiek berek, eta bat datozen gure hasierako ondorioekin.

Mapek, ikusten dugunez, ez dute, itxurari dagokionez, zerikusirik elkarren artean. Alde batetik, euskaldun zaharren ehunekoak adierazten dituen mapa daukagu; elebidunen ehunekoak banaketa erakusten duen maparen antzekoa da, oso. Araba eta Bizkaiko mendebaldeko balioak oso txikiak dira, eta, beste alde batetik, Bizkaiko Iparraldean eta Gipuzkoako barnealdean bada oso esparru trinkoa, %80tik gorako balioak dituena. Euskaldun berrien ehunekoak agertzen dituen

41. irudia. Euskaldun zaharren ehunekoak, udalerrrika. 2001



42. irudia. Euskaldun berrien ehunekoak, udalerrrika. 2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.



mapa oso bestelakoa da; hala ere, konparaziozko azterketa egin aurretik, komeni da gogoraraztea kontu bat, begi-bistakoa dena, baina sarritan kontuan hartzen ez dena. Euskaldun zaharren kopurua oso handia den (%80-%90etik gora) eremuetan, nahitaezkoa da euskaldun berrien kopurua txikia izatea; bada, beraz, alderantzizko erlazioa. Hori argi eta garbi ikusten da mapan, euskaldun zaharren mapako kolore gorria urdin bilakatzen da euskaldun berrien mapan. Alderantzizko erlazio hori gertatzen da, bestalde, nahiz eta horren nabarmen

ez izan, euskaldun zaharren ehunekoa handi samarra den udalerrietan ere.


Gainerakoan, heterogeneoa da ehunekoen konbinazioa, baina balio ertainak dira nagusi. Hala ere, kontuan hartu behar da udal txikietan nahikoa dela jende kopuru txiki bat aldaketa handiak eragiteko ehunekoetan, eta, beraz, aldakuntza horiek ez dira adierazgarriak.

Hizkuntza-gaitasunari buruzko atalean aztertu genuen elebidunen banaketa, zenbaki absolututan; eta



ikusi dugu elebidunak metropoli-guneetan daudela batez ere. Gaur egun, dena dela, logiko samarra da, gune horietan bizi baita jende gehien.

Euskaldun zaharrei dagokienez, hala ere, gora-behera handiak daude banaketa dela-eta: metropoli-guneek, Donostiak izan ezik, indarra galdu dute, neurri ertaineko guneen mesedetan. Hala bada, tokia hartu diete Gipuzkoako hiri-sarea egituratzen duten hiri ertainek (Eibar, Tolosa, Arrasate/Mondragón,...) eta Bizkaiko ekialdeko eskual-

43. irudia. Euskaldun zaharren banaketa, kopuru absolututan, udalerrika. 2001



44. irudia. Euskaldun berrien banaketa, kopuru absolututan, udalerrika. 2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.



deetako herri nagusiek (Durango, Gernika, Bermeo, Ondarroa,...) ere. Nolanahi ere, euskaldun zahar gehienak hiri-eremuetan edo inguruetan daude oraindik ere.

Orain zehatzago aztertuko dugu arestian aipatutako bi taldeen (euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak) banaketa, kopuru absolututan.

Euskaldun berriei dagokienez, kontzentrazio ikaragarria gertatzen da hiru hiriburuetan eta beren metropoli-guneetan. Euskaldun berrien kopurua, oro


har, eskualdearen demografia-neurriaren arabera da. Horregatik, Bilbon dago euskaldun berri gehien, alde handiz; ondoren, Donostian; eta, azkenik, Gasteizen.

Bitxia da barnealdearen egoera, bi mapak alderatzerakoan, «basamortua» baitirudi, tokiren bat edo beste, alegia, neurri ertaineko hiriguneak (Durango, Eibar-Ermua, Arrasate/Mondragón,...) salbuetsita.

Baliteke uste izatea hori gertatzen dela halako edo bestelako parametroak erabili ditugulako mapa egi-

teko, baina parametroak aldatzen baditugu, eta puntu bakoitzak jende kopuru txikiagoa adierazten badu (lehendabiziko kasuan 250 lagun adierazten zuen, eta, bigarrenean, 50 besterik ez), ikusiko dugu puntu gehiago agertzen dela eta toki gehiagotan, jakina, baina toki berean dentsifikatu besterik ez dugu egingiten; eta, agian, ez du halako «basamortu» itxurarik, baina egoerak berdina izaten jarraitzen du. Mapa arreta handiz aztertuz gero, ikusiko dugu euskaldun berrien banaketa bat datorrela, oro har, EAEko hiri-sare nagusiarekin; horrek erakusten du, are gehiago, hiri-gertakaria dela.

45. irudia. Euskaldun berrien banaketa, kopuru absolututan, udalerrika. 2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.



### 1.3. Euskararen irabaziak eta galerak

**B**ILA indizean lortutako tipologietatik bi aztertu ditugu arestian; horietako bat da euskaldun berriena. Lehen hizkuntza euskara ez beste bat izan dute, baina euskaraz ondo jarduten ikasi dute. Talde hori, beraz hiztun berriz osaturiko taldeztat har daiteke, hizkuntza horretara etorri dira. Ordea, badira beste bi talde euskara izan dutenak lehen hizkuntza, eta euskaraz hitz egiteko gaitasuna galdu dutenak, oso-osorik edo zati batean, behintzat (erdaldunduak edo partzialki erdaldunduak). Hizkuntzak galdu dituenak dira horiek. Talde biak alderatuz gero, jakingo dugu zein den hizkuntzaren progresioa, eta ea joera positiboa edo negatiboa duen.

Talde horien emaitzak agertzen dituen grafikoa aztertuz gero, ikusten dugu bai EAEn eta bai hiru lurralde historikoetan ere, gehiago direla, alde handiz, hizkuntzara etorritakoak hizkuntzak galdu dituenak baino. Grafikoa argi eta garbi ikusten da alde hori, eta, argi dago, beraz, progresioa hizkuntzaren aldekoa dela.

Ondoren, dagozkien mapen bidez, aztertuko dugu ea nola dauden banatuta, udalerrika, hizkuntzara etorritakoak eta hizkuntzak galdu dituenak.


Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrri batzuetan, hizkuntzara gehitutakoen kopurua batez bestekoa baino handiago da; udal horietatik gehienak neurri ertain edo ertain-handikoak dira. Esaterako, Gipuzkoan,

Donostia, eta horrekin batera, inguruko herriak eta neurri ertaineko hiriak (Eibar, Zumarraga, Arrasate, Beasain,...) dira horietakoak; Bizkaian nabarmentzen dira Getxo eta inguruak, bai eta Bilbo Handiko ezkeraldeko zenbait udal, eta Ibaizabal ardatzeko gune handienak ere: Basauri, Galdakao eta Durango. Udal horiez gain, bada lerro bat, Ipar-Mendebaldetik Hego-Ekialdera, osatuta dagoena batez bestekoa baino ehuneko handiagoa duten udalez —mugakide dituzte, hala ere, aurkako joera erakusten duten bi

eremu—. Lerro horrek banatzen ditu, oro har, elebidun gehien duen eremua, batetik, eta elebidun kopuru txikiena duena, bestetik. Hala ere, bi eremu horiek badute ezaugarri bera: hizkuntzara etorritakoen ehuneko batez bestekoaren azpikoa da.

Galerez<sup>2</sup> hitz egin aurretik, galera partzialak edo erabatekoak izan, gogorarazi behar dugu errealitate bat, begi-bistakoa dena, baina halako azterketak egiterakoan, zenbaitetan, behintzat, kontuan

46. irudia. Euskararen irabaziak eta galerak. 2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak. 2004.

<sup>2</sup> Galeratzat hartzen da norbaitek lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izanik, nekez aritzen bada euskaraz (galera partziala) edo ez badu batere hitz egiten (galera osoa).

hartzen ez dena: ezer ez dagoen tokian ezin da ezer galdu. Horrexegatik, hain zuzen, Bilbo Handiko ezker aldean eta Enkarterrietan, biak ere Bizkaiakoak, eta ia Araba osoan, ez dago ia inolako galerarik.

Galerak erakusten dituzten mapak aztertuz gero, ikusiko dugu oso udal gutxi dituztela galera handiak; horrez gain, sakabanatuta daude udal horiek, eta, itxuraz, ez diote arrazoi jakin bakar bati erant-


zutzen. Hala ere, batez bestekoa baino galera kopuru handiagoa duten udalak aztertzen baditugu, erraz antzemango dugu eremu jakin batzuetan dardela. Araban, esaterako, galerak dituzten udalak gutxi dira, baina guztiak ere ingurunerik euskaldunenetakoa, alegia, Aramaio ingurukoak; eta horiei erantsi behar zaizkie Bizkaiko bi udal, aurrekoen mugakide direnak, Ubide eta Otxandio. Bizkaian hiru ingurunetan biltzen dira galera gehienak; ingurune horiek «C» makur antzeko bat osatzen dute,

Ibaizabalen korridorean (Durangotik Basauriraino) hasten dena, ondoren Bilbo Handiko eskuineko ibarra hartzen duena, eta, azkenik, kostaldean bukatzen dena, Getxotik Earainoko lerroan, baina bide batez, Mungia eta Gernika ere hartzen ditu. Bukatzeko, bada beste gune bat, Arratiako zenbait herri eta Audio (Arabako herri mugakidea) biltzen dituena.

Gipuzkoari dagokionez, hiru gune nagusi daude. Lehenengoa da Donostiako metropoli-gunea; bigarrena, Tolosa-Beasain gunea; eta, azkenik, batez beste baino galera handiagoa duten gainerako herriak Deba korridorearen ingurukoak dira. Hiru horiek dira, ziurrenik, Gipuzkoako toki industrializatuenak, komunikazio-bide hobeak dituztenak, hiritartuta daudenak, eta horren ondorioz, bizimoduan aldaketa handiagoa izan dutenak. Bizkaian ere aplika daitezke irizpide horiek. Beraz, baliteke galera gehien gertatzen diren tokiek aipatutako ezaugarriren bat, edo guztiak, betetzea.

Nolanahi ere, galerei buruz luze aritu garen arren, ez dugu ahaztu behar EAEn euskarak irabazten dituen hiztun berriak, batez beste, %10,8 direla; beste era batera esanda, askoz ere gehiago direla hiztun berriak galera partzialak (%1,6) edo galera osoak (%0,5) baino. Beraz, oro har, esan behar dugu galerak oso txikiak direla, irabaziak baino askoz ere gutxiago. Kopuru absolututan emanez gero, are argiago ikusiko dugu. Galerak, guztira, 40.000 lagun pasatxo ziren (41.689), eta hiztun berriak, berriz, 200.000 baino gehiago (215.220).

47. irudia. Hizkuntzara etorritakoen banaketa



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.



#### 1.4. BILA indizea, adinaren arabera


**B**ILA indizea adin-taldeka aztertzeko, aurrekoan egin dugun bezala, euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak izango ditugu ardatz. Euskaldun zaharren ehunekorik handienak dira 80 urtetik gorakoen artean, eta, hortik beherako adinetan, jaitsiz doa harik eta 30-34 urtekoen taldera iritsi arte. Talde horrek du ehunekorik txikiena, %20 baino gutxiago baitira. Hurrengo taldeetan goranzko joera hartzen

du, eta gazteenei (5-9 urte) dagokienez, %25ekoa da ehunekoa. Euskaldun berrien ehunekoak oso txikiak dira 50 urtetik gorako adin-talde guztietan. Hortik beherako adin-taldeetan goranzko joera hartzen dute, etengabe eta motel; 30 urtekoetara iristean prozesua azkartu egiten da, eta ehunekorik handienak 10-14 urtekoen taldean dira. Laburbilduz, hizkuntza-gaitasuna aztertu genuenean bezala, euskaldun berrien ezaugarria da gazteak direla, eta euskaldun zaharrei dagozkien ehunekorik altuenak


zaharrenean artean daude; hala ere, kopuru absolututan, 25-45 urtekoen artean dago euskaldun zahar gehien.

Lurralde historikoetako BILA bilakaera-indizeak erakusten du, gaingiroki, antzekoak direla lurralde horietako eta EAEko balioak. Lurraldea zenbat eta euskaldunagoa izan, euskaldun zahar gehiago ditu, eta euskaldun zaharrek ehunekorik altuenak dituzte zaharrenean artean. Erdiko adinetan atzeraka egiten dute ehunekoak, eta, azkenik, hogeita hamar urtetik

48. irudia. Galera partzialen banaketa. 2001



49. irudia. Erabateko galeren banaketa. 2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.

beherako taldeetan handitu egiten dira balioak Gipuzkoan, eta gutxiago, Bizkaian. Arabak, berriz, oso ehuneko txikiak ditu adin-talde guztietan


Euskaldun berriak direla-eta, prozesu orokorra antzekoa da hiru lurraldeetan; oso ehuneko txikiak dira 40 urte artekoen artean, eta hortik aurrera irabaziak handiak dira, Araban handiagoa Bizkaian baino; gehieneko balioak 20-30 urtekoen artean gertatzen dira. Gipuzkoak bestelako jokabidea du. Euskaldun berrien gertakaria zaharragoa da, eta gehieneko

balioa 30-35 urtekoen adin-taldean dago. Gazteen artean indarra galtzen ari da. Horrez gain, euskaldun berriek ez dute inoiz izan, Gipuzkoan, gainerako bi lurraldeetan izan duten indarra; hori gertatu da, zurrerik, euskaldun zaharren ehunekoa askoz ere handiagoa izan delako.


Edonola ere, eta alde batera utzita euskara zenbateraino dagoen errotuta lurralde bakoitzeko gizartean, aztertutako prozesuak ildo nagusiak erakusten dizkigu, EAE osoan antzekoak direnak. Euskaldun

zaharren kopuruek goranzko nolabaiteko joera erakusten dute adin-talde guztietan. Euskaldun berriei dagokienez, gehikuntza handia izan zen, baina gazteen artean beheranzko joera etengabea islatzen da. Horrekin batera, baina, gero eta handiagoak dira euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen ehunekoak.

50. irudia. Hizkuntza-bilakaeraren (BILA) indizea, EAEn, adinaren arabera. 2001



51. irudia. Hizkuntza-bilakaeraren (BILA) adin-piramidea, EAEn, adinaren arabera. 2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz. 2004.



52. irudia. Lurralde historikoetako hizkuntza-bilakaeraren (BILA) indizea, adinaren arabera. 2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz. 2004.

### 1.5. BILA indizea, udalerrika, adinaren arabera






**O**ro har, euskaldun zaharren banaketa bat dator, hizkuntza-gaitasunaren atalean aztertu dugunez, elebidunen banaketarekin. Dena dela, ehunekoetan bada alderik adin-taldee dagokienez, batez ere eremu euskaldunetan. Adinez zenbat eta gazteagoak izan, ehunekoak ere behera egiten du. Baliorik txikiena 25-44 urteko adin-taldearena da. Hortik aurrera aldatu egiten da joera, eta gora egiten dute ehunekoak.

Gaur egungo joerek erakusten dutenez, handitzen ari da, etengabe eta bizi-bizi, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien kopurua.

Euskaldun berrien eta jatorrizko euskaldunen kopurua handitzea gertakari berria da, azken 20-25 urteetan indartu dena. Hain zuzen, mapak aztertuz gero, ikusiko dugu bi kasuetan, euskaldun berriak eta jatorrizko euskaldunak, erabat desberdinak direla gazteenen adin-taldea (5-24 urte) eta gainerako hirurak. Hala ere, bada alderik bi gertakarien artean. Esaterako, euskaldun berrien fenomenoak EAE osoari eragiten dio, euskaldun zaharren ehunekoak oso altuak diren tokiei (gehienetan %80tik gorakoak) izan ezik; behin-behinean baino ez dira azaltzen askoz ere puntualagoa da elebidunak azaltzea.

Jatorrizko elebidun gehien dituzten udalak zein diren begiratuz gero, berehala konturatuko gara gehienak neurri ertaineko hiriguneak direla, edo horien mugakideak. Horrek erakusten du gertakari hori hiri-gertakaria ere badela. Udal horiek guztiak, bestalde, EAEko errepide nagusietan daude: Bilbo-Donostia autobidea, N-1 eta Getxo-Bermeo-Gernika-Mungia ingurunea. Bilbon eta Gasteizen, oraindik ere, oso txikia da, ehunekoetan, jatorrizko elebidunen kopurua.


**53. irudia** Euskaldun zaharren banaketa, adin-taldearen arabera. 2001 (%)



*Iturria:* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurjaritza. 2004.








54. irudia. Euskaldun berrien banaketa, adin-taldearen arabera. 2001 (%)



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.



55. irudia. Elebidunen banaketa, adin-taldeen arabera. 2001 (%)



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.

### 1.6. Euskararen irabaziak eta galerak, adinaren arabera

**B**ILA indizea egiterakoan ezarritako sailkapena aztertuz gero, arestian esan dugun bezala, bi taldek agertzen dute euskararen galera «partzialki erdaldundutakoak» eta «erabat erdaldundutakoak»,


eta, aurrez aurre, irabaziak erakusten dituen beste talde bat ere bada, euskaldun berriena.

Irudietan ikusten denez, joera orokorra berdintsua da kasu guztietan. Adina zenbat eta txikiagoa izan, gehikuntzak ikusgarri igotzen dira, eta gehienezko maila 10-14 urtekoena da.

Galeren balioak txikiak dira adin-talde guztietan, eta ez dago ia batera galerarik 25 urtetik beherakoan ar- tean.

Baliorik Handienak erdiko taldeetan daude, 35-50 urte bitartekoetan, eta txikiagoak dira zenbat eta zaharra- goak izan.

56. irudia. Galerak eta irabaziak, adin-taldeen arabera. 2001





\* %0,5 inguruko edo gutxiagoko galerak ez dira irudikatu

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.



57. irudia. Galerak eta irabaziak, adin-taldeen arabera. 2001



Galerak eta irabaziak

- Irabaziak
- Galera partzialak
- Galera osoak

\* %0,5 inguruko edo gutxiagoko galerak ez dira irudikatu

Iturria: Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.

## 2.

### BILA indizearen bilakaera (1986-2001)

#### 2.1. Sarrera


**B**ILA indizeko taldeak ez dira neurri berekoak, ez EAEn, ezta lurralde historikoetan ere; eta, zenbaitetan, aldatu ere zertxobait aldatu da azken 15 urteotan.

*Euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen egoera antzekoa da, edo irabazi txikiren bat izan dute; euskaldun berrien taldea, berriz izugarri handitu da (partzialki euskaldun berriak taldearen handitzea ez da hainbestekoa izan.)*


Azken bi talde horien progresioak eragina du, batez ere, *erdaldun zaharren* taldean, horien ehunekoa nahikotxo murrizten baita (EAEn, batez beste, 10,6 puntu gutxiago). Beste alde batetik, *partzialki eta erabat erdaldunduak* taldeek atzera egin dute apur bat.

Azaldu berri ditugun joerak oso antzekoak dira, aldeak alde, EAEn eta hiru lurralde historikoetan.


58. irudia. BILA indizea, EAE. 1986



59. irudia. BILA indizea, EAE. 2001




60. irudia. BILA indizearen bilakaera EAEn. 1986-2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz. 2004.



61. irudia. BILA indizearen bilakaera lurralde historikoetan. 1986-2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.

## 2.2. BILA indizearen bilakaera, adinaren arabera (1986-2001)

Zaharrenen taldeetan, alegia, 65 urtetik gorakoen adin-taldeetan, biztanleria ia guztia bi taldetan dago polarizatuta: euskaldun zaharrak eta erdaldun zaharrak. Gehiago dira erdaldun zaharrak, %60-%70 artean baitaude aztertu diren urte guztietan. Adin horretatik behera joan ahala, talde txikienek indarra hartzen dute, partzialki edo erabat erdaldunduen taldeak izan ezik, azken horiek ez baitute ia aldaketarik ehunekotan populazio osoan.

Gainerako talde txikiei dagokionez, jatorrizko elebidunen taldea handitu da gutxien: egonkor 40 urtetik gorakoen artean, eta hortik aurrera handitzen hasten da, etengabe; horregatik, urtetik urtera balio handiagoak azaltzen dira, batez ere gazteenen artean. Dena dela, balio horiek ez dira inoiz ere %10 baino handiagoak.


Gehien handitu dena euskaldun berrien taldea da, eta aztertutako aldiaren, handitze-erritmoa gero eta bizia- goa izan da. 1996. urtetik aurrera pisurik handieneko taldea da gazteenen artean (15 urtetik beherakoak).

Euskaldun zaharrak eta erdaldun zaharrak direla-eta, nagusi baitira 65 urtetik gorakoen artean, alde handia dago bilakaerari dagokionez. 1986ko grafikoan ikusten denez, euskaldun zaharren ehunekoa zertxobait jaitsi zen garai hartan, eta egonkortu egin zen 20 urtetik beherakoen artean. Bilakaera, hasieran, gainerako urteetako bezalakoa izan zen; hala ere, denborak aurrera egin ahala, geldialdi hori piztu eta aldatzen hasi zen, eta taldea suspertu egin zen: geldi egotetik igaro zen, aztertutako aldiaren bigarren erdialdean, adin-talde gazteenen artean gehikuntza motel baina etengabea izatera.

1986an, aldiz, erdaldun zaharren taldeak etengabe-ko irabaziak eduki zituen 45-49 urtekoen adin-taldera iritsi arte, izan ere, adin-talde horrek zeukan kopururik handiena. Talde horretatik aurrera, zenbat eta gazteagoak izan, gutxiago ziren erdaldun zaharrak, eta prozesua are azkarragoa da gazteenen artean. Joera hori, iraun ez ezik, areagotu ere egin zen gero- ra, eta erdaldun zaharren taldea zahartu egin zen, nabarmen; gehienezko balioak talde beretan zeuden, baina zaharragoak ziren lehen baino (gehienezko balioa izan zen, 1986an, 45-49 adin-taldean; 1991n, 50-54 adin taldean; 1996an, 55-59 taldean; eta 2001ean, 60-64 adin taldean), eta, beste alde batetik, gero eta azkarrago jaitsi ziren talde horren ehunekoak.




62. irudia. BILA indizearen bilakaera, adin-taldeen arabera, EAE. 1986-2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2004.





**IV.**  
**Etxean erabiltzen den**  
**hizkuntzaren indizea,**  
**ERABIL**



1.

**ERABIL indizearen gaur egungo egoera (2001)**

1.1. Sarrera

**E**RABIL indizea lortu da BILA indizea (lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren arteko konbinazioa) gurutzatu ondoren etxeko hizkuntza adierazten duen aldagaiarekin.

Gurutzaketa horren emaitzak erakusten du BILA indizeko taldeek zein hizkuntza darabilten etxean, alegia, ea talde horiek euskaraz jarduten duten etxean.

Hala bada, ERABIL indizeko taldeak izango dira BILA indizeko berberak, baina hiru bider, etxean gehienetan erabiltzen duten hizkuntzaren (euskara, euskara eta gaztelania, edo gaztelania) arabera biderkatuko baititugu. Alde batera utziko ditugu erdaldundutakoak eta erdaldun zaharrak, ez baitakite euskaraz, eta beraz, gaztelaniaz baino ezin dute jardun.


Lehenengo eta behin, EAeko populazioa ERABIL indizearen arabera nola banatzen den aztertuko dugu. Ikusten dugunez, biztanleriaren erdia erabat erdaldunduez eta erdaldun zaharrez osatua dago.

Euskaldun zaharrak populazioaren %18,5 dira; talde horretan daude euskal hiztun aktibo ia guztiak, hau da, populazioaren %13. Talde horretako gehienak euskaldun aktiboak dira, ia hiru laurdenak; bostetik bat aktiboak dira, bietan, euskaraz eta gaztelaniaz, eta hamarrenak euskaldun zahar pasiboak.

Jatorrizko elebidunak direla-eta, (guztien arteko %3), nagusi dira bi hizkuntzetan jarduten dutenak, alegia, jatorrizko elebidun bietan aktiboak %62,6 baitira; ondoren, jatorrizko elebidun pasiboak direnak daude (%30,1); eta, azkenik, euskaldun aktiboak (%7,4). Euskaldun berrien artean (%10,8), argi eta garbi dira nagusi euskaldun pasiboak (%84,1); bietan aktiboak direnak %10 baino zertxobait gehiago dira %11,8), eta euskaldun aktiboak, berriz, %4 (%4,1) besterik ez.

Beste bi taldeek, partzialki euskaldun berriak direnek, batetik, eta partzialki erdaldunduak, bestetik, oso pisu desberdina dute. Lehendabizikoak, adibidez, populazioaren %15 baino gehiago hartzen du (%16,6), eta bigarrenak, berriz, %2 ere ez. Hala ere, badituzte zenbait ezaugarri berdintsu, adibidez, ez daukate euskaldun aktiborik, eta euskaldun pasiboak dira, bi taldeetan, gehienak; baina ehunekoen banaketa oso desberdina da. Partzialki erdaldunduen herenak baino zerbait gehiago (%38,1)

63. irudia. ERABIL indizea, EAE. 2001 (%)



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz. 2004.



aktiboak dira bi hizkuntzetan; euskaldun berrien artean, berriz, ehunekoa ez da 5era ere iristen (%4,7).

Lurralde historikoen arabera aztertzerakoan, kon-tuan hartu behar da Lurralde bakoitzak bere-bereak diren ezaugarriak dituela, eta, horregatik, popula-zioaren egitura aldatu egiten da batetik bestera. Logikoa denez, lurraldea zenbat eta euskaldunagoa izan, handiagoa izango da euskararen erabilera, eta, beraz, handiagoa euskaldun aktiboan eta bi hizkuntzetan aktiboak direnen kopuruak, eta, or-dea, gutxiago izango dira euskaldun pasiboak. Bestalde, nabarmen murriztuko da, lurralde horre-tan, jakina, erabat erdaldunduen eta erdaldun za-harren taldea.

Beraz, azken talde horrek, erdaldun zaharrenak, ale-gia, populazioaren bi heren hartzen ditu (%64,3), baina Gipuzkoan, aldiz, erdira dator ehunekoa (%33,6). Beste muturrean daude euskaldun akti-boak. Izan ere, Araban, %1,9 dira, Bizkaian, %8,5, eta Gipuzkoan, ordea, %27.


Lurralde bakoitzeko taldeak aztertuz gero, ikusten da euskaldun zaharren taldea izan ezik, populazioa-ren banaketa nahiko antzekoa dela taldeek hartzen duten tokiari dagokionez, baina ez, aldiz, ehunekoen balioei dagokionez.

Esandakoaren ildotik, euskaldun zaharrak dira sal-buespena. Araban, esaterako, erdiak baino gutxiago dira euskaldun aktiboak; Bizkaian, baina, bi heren dira, eta Gipuzkoan, hiru laurden. Gehikuntza horrek berarekin dakar, noski, bi hizkuntzetan aktiboak dire-nen kopurua murriztea (Araban %28, eta Gipuzkoan %19) eta euskaldun pasiboak asko urritzea (%24 eta %8 artean, hurrenez hurren).

Gainerako taldeei dagokienez, antzeko joera antze-maten da hiru lurraldeetan, eta erabilera-mailaren posizio erlatiboa ere berdina da hiruretan. Jatorrizko elebidunen artean, esaterako, gehienak aktiboak dira bi hizkuntzetan; euskaldun berrien, partzialki euskal-dun berri direnen eta partzialki erdaldunduen artean, ordea, euskaldun pasiboak dira gehienak; hala ere, azpimarratzekoa da asko direla, proportzioan, par-tzialki erdaldunduen artean, bi hizkuntzetan aktiboak


direnak: gertakari horrek zerikusia dauka, zer esanik ez, beren lehen hizkuntza euskara hutsik edo gazte-laniarekin batera izatearekin.

64. irudia. Euskararen etxeko erabilera, lurraldeka. 2001 (%)




Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz. 2004.



65. irudia. ERABIL indizea, Araba. 2001 (%)



66. irudia. ERABIL indizea, Bizkaia. 2001 (%)



67. irudia. ERABIL indizea, Gipuzkoa. 2001 (%)



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz. 2004.



### 1.2. Azterketa, udalerrrika

Lurralde historikoetan aipatu ditugun joera orokorrekin berdinduta balio dute udalerrriko. Hau da, euskararen erabilera asko aldatzen da udal-eremu euskaldunean egon ala ez; horrek erakusten du zenbateraino den garrantzitsua, hizkuntza bat edo beste aukeratzeko, sareko euskaldunen dentsitatea.

### 1.3. ERABIL indizea, adinaren arabera

Arestian esan dugun bezala, etxean euskara erabili ohi duten ia hiztun guztiak euskaldun zaharren taldekoak dira. Proporziorik handiena 65 urtetik gorakoen artean dago; adin horretatik behera, jaitsi egiten da etxean batez ere euskaraz hitz egiten dutenen ehunekoa, eta 30-34 urtekoen adin-taldekoek erabiltzen dute gutxien. 30 urtetik beherakoen artean berriro hasten da goranzko joera, eta 65-75 urtekoen erabilera iristen da.

Nolanahi ere, etxean euskara erabili ohi duten lagunen ehunekoa ez da adin-talde batean ere %20tik gorakoa eta %25, ordea, 80 urtetik gorakoen eta 10 urtetik beherakoen artean, gaztelaniarekin batera hitz egiten dutenak ere talde horretan sartzen badiugu.

Dena dela, lehen hizkuntza zein den, aldatu egiten da euskararen erabilera: euskaldun zaharrek erabiltzen dute gehien etxean. Etxean euskaraz jardun ohi duten euskaldun zaharren ehunekoa oso antzekoa da adin-talde guztietan, batez beste %70. Proporzioari dagokionez, zertxobait gehiago dira


50 urtetik gorakoen eta 15 urtetik beherakoen artean.

Era berean, bost euskaldun zaharretik batek erabili ohi du etxean bai gaztelania eta bai euskara ere. Proporzioa handiagoa da adin-taldea zenbat eta gazteagoa izan, eta baliorik handiena 35-39 adin-taldeari dagokio. Azkenik, hamar euskaldun zaharretik batek batez ere gaztelania erabiltzen du etxean. Halakoan artean, adinaren arabera aldeak agerikoak dira: gaztelania besterik erabiltzen ez du-

tenen proportzioak behera egiten du adinak berak ere behera egiten duen neurrian: gazteenen proportzioa (%6,9) zaharrenen proportzioaren (%13,4) erdia da.


Oso bestelakoak dira emaitzak, euskararen etxeko erabilera dela-eta, euskaldun berrien taldea aztertuta. Batez beste, %4,1ek erabili ohi du batez ere euskara etxean, baina alde handiak daude adin-taldeen artean. 30 urtetik beherako euskaldun berrietatik, batez beste %2k baino gutxiagok erabili ohi dute

68. irudia. EAE, ERABIL indizea, adin-taldeen arabera. 2001




Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak. 2004.


69. irudia. EAE, euskaldun zaharrak, adin-taldearen arabera. 2001



70. irudia. EAE, euskaldun berriak, adin-taldearen arabera. 2001



71. irudia. EAE, jatorrizko elebidunak, adin-taldearen arabera. 2001



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz. 2004.



euskara etxean; 35-60 urte arteko euskaldun berrien artean, berriz, %13 ingurukoa da batez bestekoa. 60 urtetik gorakoan artean ere behera egiten du. Bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen batez besteko proportzioa zerbait handixeagoa da (%11,8); hala ere, adin-taldeka aztertuta, batez ere euskara erabiltzen dutenen antzeko joera erakusten dute, erabilerari dagokionez: 30 urtetik beherakoan eta 60 urtetik gorakoan artean ehunekoak txikiak dira, eta erabileraren batez bestekoa bikoiztu egiten da 35-60 urte arteko adin-taldeetan.

Orain arte azaldutako emaitzek argi eta garbi erakusten dute euskaldun berri gehienek (%84,1) gaztelania baino ez dutela erabiltzen etxean. Bestalde, 30 urtetik beherakoan artean, gaztelaniaren erabilera batez bestekoa baino handiagoa da, %90 ingurukoa baita.

Euskaldun berriek etxean euskara horren gutxi erabiltzen dute beren etxeetan oso txikia delako elebidunen dentsitatea, eta, oro har, trebeagoak direlako gaztelaniaz, eta errazago egiten zaie.

Beste alde batetik, jatorrizko elebidun gehienek bi hizkuntzak erabili ohi dituzte (%62,6), eta ez da ia alderik adin-taldean arabera. Hala ere, azpimarratu egin behar da batez bestekoa baino handiagoak direla erabilera-ehunekoak 35 eta 60 urte artean. Batez ere euskara erabili ohi duten jatorrizko elebidunak dira, %5 batez beste, 25 urtetik beherakoan artean; 30-55 urte arteko taldeetan %10 baino gehiago dira; eta zaharrenean taldeetan balioek behera egiten dute. Azkenik, jatorrizko hiru elebidunetatik ia batek (%30,1) gaztelania baino ez du erabiltzen etxean. Adin-taldean arabera aldea ez dira adie-

razgarriak, baina nabarmentzeko da 25 urtetik beherakoan artean proportzioa batez bestekoa baino handiagoa dela.

#### 1.4. Etxean erabiltzen den hizkuntza, etxeko elebidunen dentsitatearen arabera

**H**izkuntza bata ala bestea erabiltzeko, berebiziko garrantzia du hiztun-dentsitateak, eta, horrekin batera, hizkuntza horretan hitz egiteko erraztasunak, alegia, trebetasunak, ere bai. Bi faktore horien garrantzia ondo asko egiaztatu dute orain arte egindako Euskal Herriko hiru inkesta soziolinguistikoetako emaitzek. Euskarari dagokionez, badakigu, bestalde, elebidun-dentsitatea erabakigarriagoa dela etxean erabiltzerakoan, gainerako esparruetan (lagunartean edo lanean, esaterako) baino. Are gehiago, euskara izan dadin ohiko hizkuntza etxean, behar-beharrezkoa da etxeko guztiek jakin dezaten euskaraz hitz egiten. Nahikoa da familiako kide bakar batek euskaraz ez jakitea erabilerak oso behera egiteko.


Esku artean dauzkagun emaitzek erabat berresten dute premisa hori. Hau da, EAEko familien elebidun-dentsitatea %80tik gorakoa bada, euskara erabili ohi dute %72,3tan etxean, eta %17,4tan gaztelania beste erabiltzen dute euskara. Gainerakoetan gaztelania erabili ohi dute (%10,3).

Baina elebidun-dentsitateak %80tik behera egiten badu, erabilera, kasurik onenean ere (dentsitatea %60-%80 artekoa da), %16,5era jaisten da. Hala-koetan, bi hizkuntzen erabilera %33,7koa da. Etxeko elebidun-dentsitatea %60tik beherakoa bada, ia inork ez ohi du erabiltzen euskara, eta bi hizkuntzen erabilera ere %13 ingurukoa da halakoetan.

Euskararen erabilera hiru lurralde historikoetan eta elebidun-dentsitatearen arabera neurtuz gero, emaitzek argi erakusten dute zeinen garrantzitsuak diren atal honen hasieran aipatu ditugun bi faktoreak: hizkuntza batean edo bestean aritzeko trebetasun-maila (erraztasuna) eta elebidunen dentsitatea. Bizkaian, eta batez ere, Gipuzkoan, elebidunen proportzioa, oro har, eta, bereziki, euskaldun zaharren proportzioa, handiagoa da Araban baino. Horregatik, hain zuzen, etxeko erabilera askoz ere handiagoa da aurreko bietan Araban baino. Arabako lurraldean, elebidunen dentsitatea txikia da, eta horietatik gehienak euskaldun berriak dira; hori dela-eta, gehienak trebeago aritzen dira gaztelaniaz, eta, beraz, etxeko erabilera asko jaisten da, kopurutan, nahiz eta etxeko guztiek edo ia guztiek ere euskaraz hitz egiten jakin.




72. irudia. Etzeko hizkuntza, etzeko elebidunen dentsitatearen arabera. 2001 (%)



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz. 2004.





V.  
**Ondorioak**



## Ondorioak

**B**egi-bistakoa da azken hogei urteotan euskararen ezagutza handitu egin dela Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Elebidunak bostetik bat ziren 1981. urtean, eta 2001ean berriz, herenak ziren; horrek esan nahi du euskarara etorri direla beste 200.000 hiztun potentzial. Gehikuntza hori, bestalde, orokorra izan da, izan ere hiru lurralde historikoetan gertatu da; are gehiago, adin-talde guztietan ere halaxe gertatu da, 65 urtetik gorakoen taldean izan ezik.

Euskarak, kopuruei dagokienez, aurrera egin du, bai, eta horrekin batera, elebidun eredu berriaren ezauzgarriak ere finkatuz joan dira; ez da, lehen bezala, landa-eremukoa, eta, bestalde, euskaldun berri horren familia- eta gizarte-ingurunea ez da, bereziki, euskalduna. Gaur egun, elebidun gehienak (%66,3) hirietan bizi dira, batez ere hiru hiriburuetakoko metropoli-guneetan eta EAEko errepide sare nagusietan lerratzen diren 10.000 biztanletik gorako udaldiran; eta, horietan ez ezik, kostaldeko banakako zenbait gunetan ere bai. Beraz, elebidun gehienak bizi dira populazio-dentsitate handieneko gunetan; gune horietako ezaugarrietako bat da erdaldun elebakarren indizea oso altua dela. Ezaugarri horrek, jakina, zuzenean eragiten du elebidunek euskara erabiltzeko dituzten aukeretan.

Baina euskararen egoera sakon aztertzen hasi aurretik, behar-beharrezkoa da kontuan hartzea bi gertakari, epe ertain eta luzean ondorio garrantzitsuak edukiko dituztenak gure hizkuntzaren bilakaeran. Batetik, jaiotza-tasa oso txikia denez, populazioa azkar ari da zahartzen; bestetik, xx. mendeko azken hamarkadatik aurrera atzerritar asko ari da iristen

gure lurraldera. Biztanleria zahartzea ez da gertakari berria, baina hainbeste atzerritar, gehienak gazteak, etortzea, bai, ordea. Horiek erabat gizarteratu daitezten, lehenetsi beharrekoa da ekimenak proposatzea, euskara ahalik eta errazen eta era naturalenean jaso dezaten.

Arestian ere aipatu dugu elebidunen kopurua asko handitu dela azken hogei urteotan. Dena dela, egia da EAEko biztanleen erdiek ez dakitela euskaraz, eta, horregatik, bide luzea dagoela egiteko oraindik ere.

Horrek garamatza aztertzeraz ea zein izan diren euskara ikasteko bide nagusiak. Badakigu belaualdien arteko hizkuntza-transmisioa lortu ohi dela familiaren edo hezkuntza-sistemaren bidez eta helduen irakaskuntzaren bidez. Euskarari dagokionez, familia-transmisioa da, EAEan, ia %100. Galerak, oro har, oso txikiak dira, eta ez da batere galerarik gazteen artean. Gainera, gertakari hori laster egin beharreko ikerketa batek berretsiko badu ere, esan genezake euskararen familia-transmisioak ez duela behar horretarako baldintza egokiena, hau da, aita eta ama elebidunak izatea; gero eta ohikoagoa da aita edo ama, bietatik bat bakarrik, izatea elebidun. Halakoetan, euskararekin batera gaztelania ikasi ohi dute haurrek.

Nolanahi ere, inolako zalantzarik gabe, hezkuntza-sistemak jarraitzen du izaten biderik garrantzitsuena euskara ikasteko. Hizkuntza-ereduak ezarri zirenetik, etengabe handitu da B eta D ereduaren matrikulatutako ikasleen kopurua, eta neurri berean murriztu da A ereduaren matrikulatutakoena. Baina, oraindik ere, egoera oso desberdina da, ikasketa-maila zein den. Adibide bat ematearren, A ereduak da nagusi Lan-

bide Heziketan, eta Haur Hezkuntzan, esaterako, 10 ikasletik 9k B eta D ereduaren ikasten dute.

Beraz, elebidunak gehitzea gazte-gertakaria da. 20 urtetik beherako adin-taldeen nagusi dira elebidunak. Horrez gain, adin-taldea zenbat eta gazteagoa izan, handiagoa da elebidunen ehunekoa. Eta kopuru absolutuei dagokienez ere, elebidun gehienek (%47,6) 30 urte baino gutxiago daukate.

Gazte elebidun gehienek familia-ingurunea eta harreman-ingurunea erabat erdalduna da. Beren familietan inork ere ez daki euskaraz, eta populazio-dentsitate handiko metropoli-gune oso erdaldunetan bizi dira. Euskaldun berriak dira, hau da, lehen hizkuntza euskara ez besteren bat izan dutenak, eta, aurrez adierazi dugunez, eskolan ikasi dutenak.

Elebidunen artean, oraindik ere, euskaldun zaharrak dira nagusi, hau da, lehen hizkuntza euskara izan eta gaur egun ere ondo hitz egiten dutenak. Baina lurraldeka, udalerrika edo adin-taldeka zehatzago aztertuz gero, bestelako errealitatea ikusi ahal izango dugu. Bizkaian eta Gipuzkoan, oro har, euskaldun zahar gehiago dago euskaldun berri baino, baina Araban alderantziz gertatzen da, izan ere lau euskaldunetatik hiru euskaldun berriak dira. Bestalde, metropoli-gune handietan eta 25 urtetik beherakoetan ere nagusi dira euskaldun berriak.

Gazte elebidunek daukaten ingurunea ez da proposena euskararen erabilera, oro har, gizartean, eta bereziki etxean, aurrerapen handirik izan dezan. Euskal Herrian orain arte egindako hiru inkesta soziolinguistikoen emaitzek argi erakutsi dute zein diren faktorerik garrantzitsuenak euskara erabili ahal izateko: sarean dagoen elebidun-dentsitatea, batetik, eta euskaraz hitz egiteko trebetasuna (erraztasuna),




bestetik. Azken faktore horrek lotura estua du lehen hizkuntzarekin. Bestalde, inkesta horien emaitzek diotenaren arabera, euskararen etxeko erabilera bermatuta dago familiako kide guztiak euskaldunak direnean, baina nahikoa da familiako kide batek ez jakitea erabilerak behera egiteko nabarmen.

Etxeko euskara-erabilera erreala aztertuz gero, alegia, geure buruari galdetzen badiogu ea gaur egun, EAeko populazio osoa kontuan hartuta, duela hamar urte baino gehiago hitz egiten den euskaraz, berehala ikusiko dugu, oro har, erabilera ez dela askorik aldatu, baina 25 urtetik beherakoen artean handitu egin dela. Gehikuntza hori gertatzen da gero eta gehiago direlako euskara, zer edo zer, behintzat, ikasi duten gurasoak, eta nahiz eta ez diren gai zuzen hitz egiteko (elebidun hartzailleak), euskaraz aritzen dira beren seme-alabekin.

Gure helburua baldin bada elebidun horientzat, euskara ikasi dutenentzat eskolan edo euskalduntzearen zein alfabetatzearen bidez, eta gero eta gehiago diren horientzat, euskara ohiko tresna izatea; nahi badugu gero eta jende gehiagok hitz egitea euskaraz; nahi badugu etxean ez ezik gainerako esparruetan ere maizago eta gehiago erabiltzea euskara, ezinbestekoa da elebidunek euskaraz hitz egin dezaten erraz, trebe eta naturaltasun osoz.

Premisa hori gauza jakina da, baina egia ere bada; eta bada, bestalde, gure hizkuntzaren erabilera sustatzeko edozein ekintzaren abiapuntu eta helburu ere: hitz egiteko bide erraza eta atsegina ez bada, nekez hitz egingo dugu euskaraz gehiago eta toki gehiagotan. Eta horretarako, behar-beharrezkoa da hiztunen hizkuntza-gaitasuna hobetzea eta elebidunei aukerak eskaintzea euskaraz jardun dezaten.

Jomuga hori izanik, jarduera, zerbitzu eta produktu atsegin gehiago euskaraz eskainiz gero, baliteke kontsumitzaile eta erabiltzaileen ohiturak aldatzea, eta, horren ondorioz, euskaraz mintzatzea ohiko izatea eguneroko jardueretan, besteekiko harremanetan eta gure ohituretan ere bai.



## VI. Glosarioa





## 1981-2001eko tartean azterketa soziolinguistikoan erabilitako aldagaien eta kontzeptuen definizioa

### Hizkuntza-gaitasuna (HPS)<sup>1</sup>

Hizkuntza (euskara) zenbateraino menperatzen den ezagutzeko, oinarritzko hizkuntza-trebetasunak (uler-tu, hitz egin, irakurri eta idatzi) gurutzatzen dituen tipologia.

#### Elebidunak

Euskaraz gutxienez «ondo» ulertu eta hitz egiten dutenak.

#### Elebidun hartzaileak (HPS)

Euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egin ez arren, «ondo» ulertu edo irakurtzen dutenak.

#### Erdaldun elebakarrak (HPS)

Ez dutenak euskaraz batere hitz egiten, ezta «ondo» ulertzen ez irakurtzen.

### Etxeko hizkuntza

Etxean maizen hitz egiten den hizkuntza.

### Hizkuntza-bilakaeraren tipologia (BILA)

Biztanleriaren hizkuntza-bilakaera zer-nolakoa izan den aztertzeko ama-hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna gurutzatzean oinarritutako tipologia (HPS). Gurutzatze horretatik eratorritako kategoriak 15 badira ere, azterketa egiteko 7tan bildu dira.

#### Euskaldun zaharrak

Ama-hizkuntza euskara izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

#### Jatorrizko elebidunak

Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

#### Partzialki erdaldunduak

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

#### Gutziz erdaldunduak

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz ez hitz egin, ezta «ondo» ulertu ez irakurri ere egiten ez duten pertsonak.

#### Euskaldun berriak

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

#### Partzialki euskaldun berriak

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

#### Erdaldun zaharrak

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz ez hitz egin, ezta «ondo» ulertu ez irakurri ere egiten ez duten pertsonak.

### Etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia (ERABIL)

Biztanleriaren hizkuntz jarduera-maila neurtzeko *hizkuntza-bilakaeraren* tipologia laburtuaren eta *etxeko hizkuntza* gurutzatzean oinarritutako tipologia. Gurutzatze horretatik eratorritako kategoriak 36 badira ere, azterketa eraginkorra izan dadin, 15etan bildu dira.

#### Euskaldun zahar aktiboak

Ama-hizkuntza euskara izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.

#### Euskaldun zaharrak bietan aktiboak

Ama-hizkuntza euskara izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania duten pertsonak.

<sup>1</sup> Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak finkatutako sailkapena.



### **Euskaldun zahar pasiboak**

Ama-hizkuntza euskara izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.

### **Jatorrizko elebidun aktiboak**

Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.

### **Jatorrizko elebidunak bietan aktiboak**

Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania duten pertsonak.

### **Jatorrizko elebidun pasiboak**

Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.

### **Partzialki erdaldundu aktiboak**

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurri, eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.

### **Partzialki erdaldunduak bietan aktiboak**

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurri, eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania duten pertsonak.

### **Partzialki erdaldundu pasiboak**

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurri, eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.

### **Euskaldun berri aktiboak**

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.

### **Euskaldun berriak bietan aktiboak**

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania duten pertsonak.

### **Euskaldun berri pasiboak**

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.

### **Partzialki euskaldun berri aktiboak**

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «nekez» edo hitz egiten ez badute ez, «ondo» ulertu eta irakurri, eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.

### **Partzialki euskaldun berriak bietan aktiboak**

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «nekez»edo hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurri eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania duten pertsonak.

### **Partzialki euskaldun berri pasiboak**

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «nekez»edo hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurri eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.



2001



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN 84-457-2236-0



9 788445 722367

Salneurria: 10 €